



FINANTZAZ HARATAGO

**REPENSANDO LA EDUCACIÓN FINANCIERA
DESDE UNA PERSPECTIVA ÉTICA Y PARABANCARIA**



Aitortu – Ez Komertziala – Partekatu 3.0 lizentziaberarenarabera. Lanhau librekopiatu, banatu eta jakinarazidateke, baldin eta egile adierazten bada eta xedekomertzialetarako erabiltzen ez bada. Aldatzen edo eraldatzen bada, edolan eratorriren bategiten bada, lizentziaberdinaren pean baino ezin izango da banatu..

Argitalpenaren koordinazioa eta edukien sistematizazioa:

Farapi Koop. Elkartea



Iratxe Arteagagoitia (Setem Hego Haizea)

Laura Ruiz Álvarez (Mugarik gabeko ekonomilariak)

Manolo Vilabril (Oikocredit)

Ricardo Usategui Uriarte (Elkarcredit)

Saioa Bacigalupe (FIARE proiektua babesteko Elkartea)

Laguntzailea:

Unai Gondra (Ekonomiakogradua EHU/UPV).

Diseinu eta maketazioa:

Erreka Multimedia S.Coop

Itzulpena: Bakun

2017ko urria

Babesleak:



AURKIBIDEA



1. SARRERA	4
1.1. Aurkezpena	4
1.2. Nor gara eta justifikazioa	4
1.3. Metodologia eta lan-prozesua	7
2. FINANTZA-HEZKUNTZA:	9
2.1 Definizioa eta bilakaera	9
2.2 Finantza-hezkuntzaren eragina eskoletan	11
3. FINANTZA-HEZKUNTZAREN EDUKIAK ETA ERAGILEAK	14
3.1. Eduki orokorrak	14
3.2. Finantza-hezkuntza eta balio etikoak	15
4. FINANTZA ALTERNATIBO SOLIDARIOAK:ZER DIRA FINANTZA ETIKO ETA BANKUEZ KANPOKOAK?	17
4.1. Finantza etikoak	17
4.2. Banka etikoa	19
4.3. Bankuez besteko jarduerak eta mikrofinantzak	19
5. FINANTZA ETIKOEN ETA BANKUEZ BESTEKO FINANTZEN GAINEKO HEZKUNTZA	21
5.1. Zergatik eman behar da finantza etiko eta alternatiboen gaineko hezkuntza?	21
5.2. Nola eragin behar dugu hezkuntza-esparruan?	23
5.3. Edukiak	25
6. KONKLUSIOAK	28
6.1. Honako konklusio hauek nabarmendu nahi ditugu	28
7. ESTEKA INTERESGARRIAK	29
8. ERANSKINAK	30
1. eranskina. Finantza etikoen eta alternatiboengaineko material didaktikoak	30
2. eranskina. Finantzia-hezkuntzako ekimenen bilduma	37

1. SARRERA

1.1. Aurkezpena

Lehen Hezkuntzako bigarren zikloan eta Bigarren Hezkuntzan barneratu da finantzen gaineko oinarrizko hezkuntza. ELGE erakundeak eta Europako Batzordeak hezkuntza finantzarioaren beharrezana zegoela adierazi zuten 2005 eta 2007 urteen bitartean, eta premia hori eskolan hasten dela azaldu zuten. 2008. urtean, finantza-hezkuntzako lehen plana egin zuten Espainiako Bankuak eta Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak, eta gaiaren edukiak proposatu zituen plan horrek. Horrekin batera, beren finantza-hezkuntzako programa propioak lantzen eta ikastetxeetan irakasten hasi ziren banketxe tradizionalak.

Europako Batzordeak adierazten du eskolan erakusten den finantza-hezkuntzaren xedea dela <<eguneroko bizitzan finantza-erabaki informatu eta zentzudunak hartzeko jakintzak eta balioak erakustea ikasleei, eta ikasleak prestatzea bizitzan zehar izango dituzten finantza-erronka oinarrizkoei aurre egiteko>>.

Finantzek erabakiko dute, neurri handi batean, nolakoa izango den gizartearen eredia. 2008ko irailean, XXI. mendeko lehen krisi ekonomiko eta finantzarioa abiatu zenean, gogoeta-prozesu kolektibo bat bistaratu zen, finantza- eta banku-eragiketen ondorio pertsonal, sozial eta etikoen gainean.

Finantza etiko eta bankuz kanpoko bidez, ekonomia solidarioak erantzun bat eman nahi dio sistema kapitalistaren egiturazko ekitate-gabeziari, kreditua eskuratzeko eskubidea bermatu nahi du, eta eragin sozial onuragarriko proiektuetara bidatzen ditu aurrezkiak.

Finantza etikoak edo bankuz kanpoko finantzak sustatzen edo esparru horretan lan egiten dugun zenbait erakundek, hala nola Fiare, Mugarik gabeko Ekonomialariak,

SETEM Hego Haizea, Oikocredit, Elkarcredit edo Koop 57 erakundeek, Finantza Hezkuntzaren gaineko gogoeta bat, gure ikuspegitik egindakoa, bultzatu nahi izan dugu, Donostiako Udalaren laguntzarekin.

Era berean, Gizarte Eraldaketarako Hezkuntza lantzen dugun erakundeak garen aldetik, herritartasun globalaren kontzientzia indartu nahi dugu eta tokian tokiko proposamen alternatiboak sustatu nahi ditugu, hala nola finantza etikoak eta bankuz kanpokoak, giza garapen jasagarria bultzatzeko.

Egindako prozesua sistematizatzen du dokumentu honek, edukiak biltzen ditu eta parte hartu duten eta/edo kontsultatu diren pertsonen eta erakundeen ekarpenak ikusarazten ditu, gogoeta partekatu bat pizteko, debatean sakontzera gonbidatzeko, eta hezkuntza-curriculumaren prestakuntza-dukietan eta horren guztiaren atzean dagoen eredu ekonomikoan eragiteko.

1.2. Nor gara eta justifikazioa

Atal honetan, gogoeta-prozesu honi eragiten dion taldeko erakunde partaide gisa azaltzen dugu geure burua. Ekonomia- eta finantza-sistemaren gaineko ikuspegi kritikoa izateak eta finantza alternatibo solidarioak sustatzeko jarrera konprometitua eta aktiboa izateak batzen baitu, eta, orain, baita ezartzen ari den finantza-hezkuntzako ereduaren gaineko kezka ere. Kezka hori izanda, dauden alternatibak ikusarazteko premia hautematen dugu.

Beste zenbait erakunderekin konpartitzen dugu gure ikuspegia, eta haien aipamena egiten dugu agiri honetan zehar eta Erreferentziak atalean.

1. Garapenerako GKEak

1.1 Mugarik gabeko ekonomialariak

<http://ecosfron.org/>

Estatu osoan lan egiten du garapenerako GKEa da, eta ordezkariak ditu Bizkaian eta Gipuzkoan. Erakunde horren helburua da bidezko egitura ekonomikoak eta sozialak iristeko aldaketak sustatzea, hau da, giza eskubideetan oinarritutako egiturak, biziaren zaintza sustatuko duen garapen-eredu baten gainean sortuak.

Finantza etikoen esparruan, herritarrak eta ikasleak hitzaldien eta ikastaroen bidez informatzen eta sentikortzen ditu, FIARE banka etikoko proiektuak eta Gizartearekin Arduratsu diren Inbertsioak sustatuta.

1.2 SETEM Hego Haizea

<http://www.setem.org/site/eus/euskadi/>

Irabazi asmorik gabeko GKEa da SETEM Hego Haizea. EAEn lan egiten du eta egoitza bat du Donostian. Kontsumo kritikoa, arduratsua eta eraldatzailea egiteko proposamenak lantzen ditu, bestelako mundu bat eraikitzea posible izan dadin, eta giza eskubide indibidual nahiz kolektiboak eta naturarekiko begirunea gailen daitezen pertsonen, herrien eta kulturen arteko harremanetan.

Banka tradizionalak egiten dituen jardueren eragin kaltegarriak salatzeko azterlanak eta ikerlanak egiten ditu SETEMek. Horrez gainera, eragin sozial eta politikoa lantzen dute, honako hauek sustatzeko: finantza etikoak, bidezko merkataritza, nazioarteko lankidetzak, indarkeria matxistak desagerraraztea kontsumoan eta xede feministako erakundeak indartzea, besteak beste.

2. Banka etikoa

2.1 Fiare

<http://www.fiarebancaetica.coop/>

Estatu osoan egiten dute lan, ordezkariak bat ireki du Bilbon eta boluntarioen taldeak ditu, Lurralde Ekimeneko Taldearekin koordinatuta. Gizartea eraldatzeko tresna bat izan nahi du Fiarek, eta eraldaketa hori egiteko, ekonomia sozial eta solidarioko proiektuak finantzatzen ditu, eta lan egiteko bitartekoak ditu garrantzitsuak, parte-hartzea, demokrazia eta kreditua, eskubide gisa ulertuta.



Jarduera askotarikoak egiten ditu: Fiare Euskadi elkartearen bidez egiten dituen finantza-jarduez gain, finantza etikoak gizarteratzen ditu, sentikortzeko eta prestakuntza emateko prozesuak sortzen ditu beste erakunde eta sare batzuekin (REAS, Saretuz...), eta Fiareren banka etikoa proiektua aurkezten dute, oinarri sendoko beste funtzionamendu-modu bat erakusteko.

3. Bankuez kanpoko finantza-erakundeak

3.1 KOOP 57

<https://www.coop57.coop/es/euskadi>

Finantza-zerbitzuen kooperatiba bat da. Euskal Herrian, erakundearen adarrak egiten du lan. Bere egiteko nagusia da ekonomia sozial eta solidarioko proiektuak finantzatzea, finantza-bitartekaritza baliatuta. Finantzak ekonomia eta gizartea eraldatzeko tresna giltzarria direla eta kooperazio-balioak lehenetsi behar dituztela uste dute.

Finantza etikoak eta ekonomia sozial eta etikoko proiektuak sustatzeko eta horien gainean sentikortzeko lan handia egiten dute. Hitzaldiak eta mahai-inguruak antolatzen dituzte eta hainbat ekimen dinamizatzen dituzte.

3.2 Elkarcredit

<http://www.elkarcredit.org/>

Bankuz kanpoko finantza-elkartea da. Erdialdeko Amerikan (El Salvadorren eta Nikaraguan) egiten ditu finantza-jarduerak. Donostian, berriz, Erdialdeko Amerikan egiten dituzten proiektuen gaineko informazioa zabaltzen du eta sentikortze-lana egiten du, kultura berri bat sustatzeko. mailegu arduratsuek eta solidarioek erakutsitako balioen gainean. Era berean, Iparraldeko hainbat gizarte-sektoreen ahaleginak bideratzen ditu, Hegoaldean eraldatze-prozesuak laguntzeko.

Elkarteak lan egiten du mikrofinantzak mundu bidezkoago bat sustatzeko tresna izan daitezen, eta proiektu sozial erabilgarriak eta aurrezki arduratsuak batzen dituzte, gure balioen eta gure diruaren erabileraren arteko koherentzia handitzeko. Hegoaldeko komunitateetara iristeko bokazioa du, baina ez dohaintzen bidez edo gizarte-ekintza baliatuta, eskubide osoko subjektutat hartzen baititu haiek.



3.3 OikoCredit

<http://www.oikocredit.es/eu/>

Elkarte honek Euskadin egiten du lan, Bizkaian, Araban eta Gipuzkoan egiten baititu jarduerak, baina aritzen da lanean Espainiako ipar-mendebaldean ere. Funtsak biltzea da elkartearen helburua, garapen-bidean diren herrialdeetan garapen-proiektuak finantzatzeko, maileguen bidez. Horrez gainera, mikrofinantzen, banka etikoaren eta inbertsio arduratsuen eredia zabaltzen du, gizarte-sentikortzearen bidez.

Hitzaldiak, ekitaldiak, bideo-forumak eta antzeko jarduerak egiten dituzte gizartea eredu horren gainean sentikortzeko, eta sare-lana egiten du, banka etikoaren eredia zabaltzen duten beste erakunde batzuekin.

1.3. Metodologia eta lan-prozesua

Bi faseko metodologia erabili da; lehen fasean, egoeraren diagnostikoa egin da, eta bigarreanean, berriz, parte hartzea bideratu da, gogoeta konpartituen eta pertsonen eta eragileen arteko elkarlanaren bidez. Farapi Koop. Elkartek egin du prozesuaren koordinazio teknikoa eta hura arduratu da dinamizazioaz. Faseak batera egin dira denboran; beraz, elkar elikatu dute diagnostikoak eta hausnarketa-ekintzak. Hiru alderdi hauek izan ditu diagnostikoaren faseak:

- **Euskadin eta Hegoaldean finantza etikoen eta bankuez kanpoko finantzen esparruetan lan egiten duten eragileak identifikatu dira**, eredu alternatibo baten alde lanean ari diren eragileak ikusarazteko, ikuspegiak eta esperientziak bildu eta trukatzeko, eta sinergia-formulak planteatzeko.
- **Finantzen alorreko heziketan lanean ari diren eragileak identifikatu dira**¹, zer eduki eta metodologia lantzen dituzten ikertu da, eta ikuspegi kritiko batetik baloratu da nola erabiltzen dituzten finantza etiko eta alternatiboen kontzeptuak.
- **Finantza alternatibo solidarioen gaineko hezkuntzan erabiltzen diren material didaktikoak bildu eta aztertu dira**. Fiarek osatutako datu-basetik abiatuta, 26 material aztertu dira ezarri diren irizpideekin, eta horien indarguneak, mugak eta ikasgeletan erabiltzeko egokitasuna zehaztu dira. Materialak eta horien balorazioa 1. eranskinean adierazten dira.

Hausnarketa-ekintzako fasean, parte hartzeko saioak egin dira talde eragilearekin, eta, horrez gainera, parte hartzeko aukera zabaldu zaie beste erakunde batzuei, gaiaren inguruan duten ikuspegia eta beraien gogoetak biltzeko.

¹ Euskadin lan egiten dutenak nabarmenduta

Garapen alternatiboaren ikaskuntzarako eta ekintzarako komunitatea da Comparte sarea, eta Latinoamerikako 9 herrialdeko 14 zentro sozialek osatzen dute. Alboan erakundea dute laguntzaile. .

Artikulazio sozial eta politikoan pobretuak diren pertsonen ekimen produktiboak babesten dituzte COMPARTE sareko erakundeek, beren garapen-prozesuen gaineko kontrola berreskuratu eta bizi-baldintzak hobetu ditzaten. Horrez gainera, finantzazio-alternatibak eskaintzen dituzte, hala nola, toki-garapeneko funtsak, errotazio-funtsak, banka komunala eta aurrezkiko eta kredituko talde autogestionatuak, finantza-erronkei aurre egin eta jasangarritasunerako bideak eraikitzeke eskualdeetan.

Nekazaritza-ekoizle txikiei laguntzeko premiari erantzuteko sortu zen ACAPRODUSCA, Asociación Cooperativa de Ahorro, Crédito, Aprovechamiento y Comercialización de Productores de Cuscatlán y Cabañas (El Salvador). Laguntza hori aurrezkiko eta kredituko zerbitzuen bidez ematen da. Haren beste helburu batzuk dira garapen jasangarria sustatzea eta sentikortze-lana egitea pertsonekin, lankidetzaren printzipioen eta balioen bidez.

Bi jarduera nagusi egiten ditu kooperatibak; batetik, finantza-bitartekaritzan aritzen da, eta, bestetik, nekazaritzako sargaiak eta oinarriko aleak merkaturatzen ditu. Azken horren bidez, ziklo osoak sortu nahi dira, balio-katea kontrolatzeko, eta beren jarduera egiteko aukerak eman nahi zaizkie elkartutako pertsoneri, merkatuak ezarritako baldintzen mende izan ez daitezzen. Euskadiko zenbait elkarterekin elkarlanean aritzen da ACAPRODUSCA, hala nola Elkarcredit elkarterekin eta Mundubat fundazioarekin.



Lan zehatz hauek egin dira:

- **Partaidetza-dinamikak talde eragilearekin**, helburuak adosteko eta egindako prozesuaren konklusioen gainean hausnartzeko.
- **World Café jardunaldia**, hausnarketak konpartitzeko premiari erantzuteko antolatu zen. Jardunaldiaren helburua izan da gaiarekiko interesa duten erakundeen eta finantza etikoen nahiz bankuez kanpoko finantzen alorretan lan egiten dutenen ikuspegiekin eta esperientziekin aberastea hausnarketa, sareak osatzea eta etorkizunean lan egiteko aukerak bideratzea.

Lankidetzan aritzeko elkarrizketa-sareak osatzen ditu World Café metodologiak. Gai zehatzak lantzen ditu, eta gaien arteko loturak egiten dira. Hemen egin den lanketan, finantza etikoen eta bankuez kanpoko finantzen gaineko heziketa sustatzeko arrazoiak, bideak eta edukiak izan dira gai nagusiak.

Saioa Donostian egin zen, 2017ko maiatzaren 10ean. Guztira, 16 erakundeko 27 pertsonak parte hartu zuten². Jardunaldiaren balorazio oso positiboa egin zuten talde eragileak eta parte hartu zuten pertsonak.

- **Elkarrizketak egin dira Hegoaldeko eragileekin**, finantza etikoen eta bankuez kanpoko finantzen alorretan baliagarri izan daitezkeen esperientzien berri izateko, eta haien ikuspegiaren eta ibilbidearen berri izateko hausnarketa-prozesu honetan.

Zehazki, elkarrizketak egin zitzaizkien Álvaro Idarragari, Comparte sareko idazkari exekutiboari (Latinoamerika) eta Ezequiel Escobarri, ACAPRODUSCAko presidenteari (El Salvador).

² Stop Desahucios, Mugen Gaietik, Hegoa-UPV/EHU, Fiare, REAS, Olatukoop, Koop57, Attac Nafarroa, CCOO, Farapi, Mugarik gabeko Ekonomialariak, Elkarcredit, Mundubat, Setem Hego Haizea, Educación 2020, La Salle Berrozpe Ilkastetxea

2. FINANTZA-HEZKUNTZA

Finantza-hezkuntzaren kontzeptuaren esanahia aztertuko dugu atal honetan, nazioarteko eta estatuko erakunde erreferentzialesk eman dituzten definizioei begiratuta eta horien gaineko ikuspegi kritikoa landuta.

2.1. Definizioa eta bilakaera

Herritarrek finantza-sistemaren funtzionamendua ulertzeko zer gaitasun duten eta sistema horretan nola moldatzen diren behatzen ari dira, azken hamarkadatan, gobernuak eta nazioarteko erakundeak. Paradoxa bat dirudien arren, finantza-produktuen kontsumoa bultzatzen da, baina, aldi berean, gero eta argiagoa da arriskuak dakartzatela, eta finantza-alorreko prestakuntza bultzatzen da, egoerari erantzuteko.

<<Herrialde eta ekonomia garatuak eta gora bidekoek gero eta arreta handiagoz begiratzen diote beren herritarren finantza-kompetentziari, eta horren arrazoiak dira gertatu berri den krisi ekonomikoaren ondorioak, laguntza publikoen eta pribatuen sistemetan egin diren murrizketak eta antzeko politikak, demografia-profilen aldaketa eta, horren barruan, besteak beste, biztanleriaren zahartzea, eta finantza-merkatuak izan dituen aldaketak. Kezka hori handitu du testuinguru ekonomiko eta finantzario zailak (...)>>³

Finantza-krisiaren ondorioz, handitu egin da finantza-hezkuntzari eskaintzen zaion arreta, eta berariaz azpimarratzen da herritarrek sistemaren aurrean defendatzen ikasi behar dutela. Ez zaio, ordea, sistema hori eraldatzeko duten gaitasunari erreparatzen.

<<Egiaz, krisi garai honetan dute gizabanakoek ikasteko motibazio handiena, inoizko handiena baitute beren arrisku pertsonalaren gaineko pertzepzioa>> (Finantza Hezkuntzako Plana 2013-2017 BMBN-CNMV)

2005. urtean, honela definitu zuen finantza-alorreko hezkuntza ELGE⁴ erakundeak: *“inbertsiogile eta kontsumitzaile finantzarioek egiten duten prozesua, finantza-produktuen, -kontzeptuen eta -arriskuen gaineko ulermena hobetzekoa, zeinaren bidez, eta informazioa, irakaskuntza eta/edo aholkularitza objektiboa baliatuta, finantza-arriskuen eta -aukeren gaineko kontzientzia handiagoa eskuratzeko trebetasunak eta konfiantza garatzen dituzten, erabaki informatuak hartzen dituzten, eta ikasten duten non eska dezaketen laguntza eta nola hobetu dezaketen beren ongizate finantzarioa”⁵.*

³ Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioa. PISA 2015, Competencia Financiera, Informe español

⁴ Ekonomiako Lankidetzeta eta Garapenerako Erakundea.

⁵ ELGE, «Improving Financial Literacy: Analysis of Issues and Policies», 2005.

ELGE erakundeak eta Europar Batasunak⁶ herritarren finantza-alorreko hezkuntza handitzeko gomendatu diete haien kide diren estatuei. Beraz, *gaur egun, egonkortasun eta garapen ekonomikoaren funtsezko elementua da finantza-konpetentzia mundu osoan* (G-20, 2012)

Espanian, Finantza Hezkuntzako Plana argitaratu zen 2008an, Balore Merkatuen Batzorde Nazionalaren (BMBN-CNMV) eta Espainiako Bankuaren eskutik. Haren lehen ageriko ikurra www.finanzasparatodos.es web-orria izan zen.

Hau zen planaren helburu orokorra *<<herritarren kulturafinantzarioa hobetzea, herritarrek egoera hobean izan daitezkeen finantza-testuinguru berriari konfiantza nahikoz aurre egiteko, gure gizarteak azkenaldian darabilen garapenak erakutsi baitu gero eta konplexuagoak direla merkatuak, gizabanakoen eta enpresen arteko finantza-harremanak nahiz finantza-produktuak eta -zerbitzuak, eta, horren guztiaren ondorioz, geroz eta premiazkoa dela herritarren, kontsumitzaileen eta produktu eta zerbitzu horien egungo eta etorkizuneko eskatzaileen heziketari begiratzea.>>*

Hezkuntza Finantzako Plana beren interbentzio-esparruan sartu dute finantza-erakunde pribatuek, eta hezkuntza horrek nolakoa izan behar duen zehazten dute alorren horretan barneratzen direnean; beraz, finantzen alorreko hezkuntza-modu jakin baten ikuskera ezartzen dute. ELGE erakundeak berak, interes-gatazkak izan daitezkeela ohartarazten duen arren, finantza-erakundeak finantza-hezitzaile izatea komeni dela adierazten du *haien onurakoa izango baitabezero informatuak izatea*.

Gure ikuspegitik, finantza-krisien ondorioek eta desberdintasunezko egoera gero eta handiagoek agerian uzten ari dira zer ondorio kaltegarri dakartzkion globalizazio finantzarioaren kudeaketak eta banku-erakundeen jardunbideek ekonomiari eta pertsonen ongizateari⁷.

Ekitatearen, justizia sozialaren eta giza eskubideen alde egiten dugu, eta, ikuspegi horretatik, uste dugu jarrera kritikoa erakutsi behar dela finantza-eredu horrekiko eta eredu horretan sartuta dauden erakundeekiko; izan ere, gure ustez, iritsi nahi dugun eredu ekonomikoari eta finantzek eredu horretan izan behar duten egitekoari begiratu behar diegu.

Egia da ezin dela esan norberak hartutako finantza-arriskuen atzean erantzukizun indibidualak soilik daudenik, baina egia da, era berean, finantza-erabaki indibidualek ongizatean duten eraginak ez direla norbanakoentzat soilik, bai baitutuzte eragin kolektiboak ere.

ZORPETZEAREN EKONOMIA DUGU ORAIN; IKUSPEGI EKONOMIKOTIK, EZIN DA PERTSONA BAT LUZAROAN EDUKI ZORPETZE-EGOERAN, HORREK ESKLABOTZA ETA FRUSTRAZIOA BAITAKARTZA. HORREN GAINEKO GOGOETA EGIN BEHAR DUGU (ACAPRODUSCA)



⁶ Europako Batzordea, "Principios básicos para unos planes de educación financiera de alta calidad", 2007

⁷ Principales riesgos sociales y ambientales del negocio bancario en tiempos de crisis. (Telefónica-UNED katedra, Erantzukizun Korporatibo eta Iraunkortasuneko. Mugarik gabeko Ekonomialariak erakundeak egina).

Horrez gain, ez dugu uste zuzena denik finantza-erakundeak izatea, zuzenean edo zeharka, finantza-hezkuntzaren irakaskuntza- alorreko helburuak eta edukiak zehaztuko dituztenak, eta, horrez gainera, haiek ematea finantza-prestakuntza biztanleriako hainbat sektoreri, interes korporatibo espezifikoak dituztela jakinda (bezeroen erakarpena, pentsio-plan pribatuak, etab.).



HEZKUNTZA HORI IRAKASTEN DUTENEK EZ DUTE INOLAKO INTERES-LOTURARIK IZAN BEHAR BANKAREKIN EDO BESTE FINANTZA-SEKTORE BATZUEKIN (WORLD CAFÉ)

2.2 Finantza-hezkuntzaren eragina eskoletan

Finantza-hezkuntza hezkuntza-sistema formalean barneratzea lehentasunezkoa da haren sustatzaileentzat. *“Lehenbailehen hasi behar da finantza-hezkuntza ematen, eskoletatik hasita”*. Finantza-erakundeek beraiek ematen diete prestakuntza ikasleei, eta egoera horrek indartu egiten du erakunde horien interes korporatiboen gainean azaltzen dugun kezka. Finantza-hezkuntza ematen duten finantza-erakundeen etorkizuneko bezero izan daitezke haurrak eta nerabeak; gainera, finantza-produktuak askotarikoak eta konplexuak direla jakinda, aurreko belaunaldiek baino arrisku handiagoak hartuko dituzte beraien gain.

<<Lehenik eta behin, gazteek etorkizunean hartu beharko dituzten erabaki ekonomikoak orain gutxiakoak baino erronka handiagoa izango dira, egungo finantza-merkatuetako produktuen eta zerbitzuen konplexutasuna aintzat hartuta. Bigarrenik, gazteek, ziur asko, orain baino maizago hartu beharko dituzte finantza-arriskuak, bizi-itxaropena handituko delako, lanaren etekinak murriztuko direlako eta handitu egingo delako enplegua lortzeko aukeren ziurgabetasuna.(...) Finean, oraingoa baino erantzukizun handiagoa izango dute, ziur asko, erretirorako aurrezkien eta inbertsioen plangintza egiteko eta mediku-laguntzaren premiak estaltzeko; horrenbestez, era askotako finantza-produktuak baliatu beharko dituzte, gaur egungoak baino sofistikatuagoak.>>⁸

Finantza Hezkuntzako 2. Planak (2013-2017) zenbait gida didaktiko eta baliabide multimedia jarri ditu eskura www.gepeese.es, atarian, eta bere helburua da “finantza-jarduerak kudeatzeko behar dituzten ezagutzak ematea gazteei, finantza-erabaki

⁸ Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioa. PISA 2015, Competencia Financiera, Informe español

Espanian, LOE legeak (2/2006 Legea, maiatzaren 3koa, Hezkuntzari buruzkoa) eta autonomia-erkidegoek garatutako curriculumek jasotzen zituzten eduki ekonomikoak eta finantzarioak DBHko irakasgai batzuetan (Matematika, Gizarte Zientziak, Geografia eta Historia eta Herritartasuna) eta Batxilergoko irakasgai batzuetan (Ekonomia eta Enpresaren Ekonomia, Humanitateen eta Gizarte Zientzien adarrean).

LOMCE legea ezarri ondoren (8/2013 Lege Organikoa, abenduaren 9koa, Hezkuntzaren Kalitatea Hobetzekoa), finantza-gaien kopurua handitu da, horien lanketa zeharkakoa eginda hainbat irakasgaitan, bai Lehen Hezkuntzan, bai Bigarren Hezkuntzan.

Horrez gainera, Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioak Lehen eta Bigarren Hezkuntzako eskola-curriculumean barneratu du finantza-hezkuntza, honako arau hauen bidez: 126/2014 Errege Dekretua, otsailaren 28koa, Lehen Hezkuntzako oinarriko curriculumak ezartzen duena, eta 1105/2014 Errege Dekretua, abenduaren 26koa, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko oinarriko curriculumak ezartzen dituena.

Euskadin, 236/2015 Dekretuak, abenduaren 22koak, Oinarriko Hezkuntzako curriculumean barneratu du oinarriko finantza-hezkuntza.

informatuak eta zentzuzkoak har ditzaten, eta ohikoak diren akatsik egin ez dezaten, hala nola zorpetze-maila handiegiak hartzea beren gain, etorkizunerako plangintzarik ez egitea, finantza-iruzurren biktimak izatea edo beren finantza-segurtasun pertsonala eta familiarra kalte dezaketen bestelako akatsak”.

Plan horrek, era berean, adierazten du zer area komun izan behar duten finantza-hezkuntzako programek. PISA azterketako area komunak izan dira 2012an eta 2015ean⁹. Hauek dira area komunak:

- Dirua eta transakzioak

- Plangintza eta kudeaketa

- Arriskua eta dibertsifikazioa

- Finantza-aurreikuspenak

Ikuspegi hori hartuta, sistema ekonomikotik erabat berezita ageri da finantza-sistema, baina ekonomia osoaren tresna bat dira finantzak. Ekonomia, pertsonen eta ingurunearen premiei lotutako gizarte-zientzia den aldetik, ikuspegi holistiko eta kritiko batetik ulertu behar da. Finantzak ezin dira isolaturik aztertu, sistema ekonomikoan duten egitekoa eta harengan duten eragina ulertu gabe.

Prozesu bizia eta etengabea da hezkuntza, eta jakintzaren eskurapena bideratzeaz gain, justizia ekonomikoaren eta sozialaren eraikuntza moralari dagozkion balioak eta jarrerak sustatzen ditu. Horrenbestez, hezkuntza ez da neutrala, dimentsio politikoa du, eta kontzientzia kritikoa sorrarazi behar du. Herritarren mobilizazioa eta parte-hartzea handitu behar ditu kontzientzia kritikoak, indarrean diren garapeneko politiken eta eredu aldaketa sustatzeko, bidezkoak eta solidarioak izan daitezten.

“HEZIKETA INSTRUMENTALA EMATEN DU FINANTZA-HEZKUNTZAK, BAINA AKRITIKOA, ETA HEZKUNTZA KRITIKORIK BIDERATU EZEAN, IRAUNARAZI EGITEN DA STATUS QUOA” (JORGE BEREZO, OIKOCREDIT)



2012. urtean, BBVA bankuak finantzatuta, lehen aldiz barneratu zen finantza-kompetentziaren hautazko ebaluazioa PISA azterketan¹⁰. Azterketa hori izan da eskola-eremuan finantza-hezkuntza bultzatzeko erabili den arrazoietakoa bat.

Ez ditugu epaituko PISA azterketak finantza-kompetentzia ebaluatzeko egiten dituen galderak, baina nabarmendu behar da galdera horiek, batik bat, ulermen matematikoari, teknologikoari eta irakurmenari begiratzen diotela¹¹. PISAk berak aitortzen du gai-esparru horretako emaitzak matematikaren eta hizkuntzen kompetentzietan sartzen direla; hala ere, honako hau adierazten du: “ez dira kompetentzia horien bidez azaltzen emaitzen %38”.

⁹ <http://www.oecd.org/media/oecdorg/satellitesites/pisa/test/PISA-2012-FINANCIAL-LITERACY-QUESTIONS-AND-ANSWERS.pdf>

¹⁰ Ikasleen Nazioarteko Ebaluazioa egiteko Programa: hiru urtean behin egiten den ebaluazioa da derrigorrezko hezkuntza amaitzen duten ikasleei (15 urte ingurukoak), honako hiru kompetentzia nagusien gainean: zientziak, irakurmena eta matematika. 72 herrialdek parte hartzen dute.

¹¹ <https://www.mecd.gob.es/dctm/inee/pisa2015-competencia-financiera-inf-espanol.pdf?documentId=0901e72b825a92bd>

Gure ustez, ez da egokia, "finantza-kompetentzia" horren aitzakian, gogoeta kritikorik gabeko baieztapenak barneratzea testuliburuetan, hala nola "pentsio-plan pribatu bat egin beharra" edo hau adieraztea emakumeen gainean: "beren erretiroaren gaineko plangintza hobea egin behar dute, soldata apalagoak eskuratzen badituzte edo kotizazio-denbora laburragoak osatzen baldin badituzte, seme-alabak edo senideak zaindu behar dituztelako"¹². Horrelako edukiak jaso ordez, justizia fiskalaren garrantzia nabarmendu daiteke, gastu publikoa bermatzeko eta eskubide ekonomiko, sozial eta kulturalen babesa ziurtatzeko. Genero-ekitatea ere landu daiteke, zaintza-lanen ikuspegia nabarmenduta.

Horrez gainera, Finantza Hezkuntzako Planak adierazten du laguntza eman behar zaiela ikasleei, "erabaki informatuak eta zentzudunak har ditzaten", baina gure ustez, planaren edukiak garatzeko edo lantzeko moduak ez du horrelako erabakiak hartuko dituztenik ziurtatzen; izan ere, horrelako erabakiak hartzeko, ezinbestekoa da, alde batetik, zer alternatiba dauden jakitea (eta horien artean dira, paradigma ekonomiko heterodoxoak eta finantza etikoen eta bankuez kanpoko finantzen ekarpenak), eta, bestetik, ikuspegi etiko eta sozial batetik hausnartzea zer giza, gizarte- eta ingurumen-eragin edo -ondorio dituzten finantza-erabakiek (nola eta zertarako erabiltzen da nire dirua?, zer ondorio du horrek ingurumenean, Hegoaldeko herrialdeetan edo emakumeengan?).

"ESAN DUGU: ZER DA EKONOMIA? ZU ZARA EKONOMIA, ETA GURE EGUNEROKO BIZITZAKO GAUZAK, ETA FINANTZAZIOAREN GAI NEAN DUGUN IKUSPEGI HORRETATIK ATERATZEA. EZ DIRA FINANTZAK HOR GOIAN IKUSI BEHAR; AITZITIK, IKUSPEGI INTEGRATZAILE BATETIK IKUSI BEHAR DIRA" (WORLD CAFÉ)



Erabaki pertsonalen ikuspegitik lantzen da finantza-hezkuntza, eta ezkutatu egiten da, ondorioz, haren ikuspegi kolektiboa eta sistemikoa: erabaki pertsonal onen edo okerren arabera azaltzen dira finantzen alorreko arriskua eta ongizatea, eta ez sistemak berak berezko dituen ezaugarrien edo finantza-erakundeen jardun-moduen arabera. Pertsonen gainean jartzen da beren finantza-erabakien gaineko erantzukizuna, eta ezkutatu egiten dira finantza-sistemak sortzen dituen egoera bidegabeak eta banku tradizionalak egiten dituzten praktika okerrak eta abusuak. Finantza-hezkuntzaren premia justifikatzeko arrazoi bat "finantza-produktuen konplexutasun handiagoa" da, eta, arrazoi hori ematen denean, konplexutasun horri aurre egiteko gaitasun indibidualari begiratzen zaio, eta ez gardentasun handiagoa eta babes juridiko loteslea exijitzeko eman daitekeen erantzun kolektiboari.



BANKUEK GURE DIRUA ERABILTZEN DUTE ARMAK EGITEN DITUZTEN ENPRESAK FINANTZATZEKO. MUNDU OSOKO GATAZKETAN ERABILTZEN DIRA ARMA HORIEK (...) ZUZENEAN EGITEN DITUZTE INBERTSIOAK PROIEKTU ETA AZPIEGITURA HANDIETAN, ETA HORIEN ONDORIOZ, LURRALDEAK KONTAMINATZEN DIRA ETA KOMUNITATEAK LEKUALDATU BEHARREAN IZATEN DIRA; GAINERA, PARTAIDETZA EKONOMIKOA IZATEN DUTE INGURUMENA KALTETZEN DUTEN ENPRESA TRANSNAZIONALETAN. (SETEM, ¿EN QUÉ INVIERTE LA BANCA NUESTRO DINERO?¹³)

¹² DBH 4 mailako Ekonomia, McGrawHill argitaletxea.

¹³ Finanzaseticas.com, Setem erakundeak egindako web-orria da, eta, besteak beste, argitalpen hauek eskuratzeko aukera ematen du: Evolución de la banca armada en España (2013) eta ¿Dónde van nuestros ahorros? (2012).

3. FINANTZA-HEZKUNTZAREN EDUKIAK ETA ERAGILEAK

Atal honen helburua da finantza-hezkuntzaren gainean abiatu diren ekimenen ikuspegi orokor bat ematea. Helburu hori betetzeko, erakundeen mapa bat egin dugu, eta hezkuntzaren esparruan egiten duten lanaren, beren ikuspegiaren eta duten eraginaren gaineko informazioa bildu dugu. Erakundeen web-orriak erabili ditugu, eta lortu ahal izan ditugun elkarrizketak egin ditugu. Guztira, 11 erakunde aztertu ditugu, eta 6 elkarrizketa egin ditugu¹⁴.

Irakasten diren eduki orokorrak azalduko ditugu orain, eta zehaztuko dugu zer lotura duten finantza etikoekin. Finantza-hezkuntzako ekimenen bilduma bat dakar eranskinak.

3.1. Eduki orokorrak

Finantza-hezkuntza irakasten duten erakundeen artean, aztertu ditugun erakunde gehienek nabarmentzen dute norberaren dirua kudeatzeko gaitasunaren ikuspegia. Abiapuntua ez da sistema ekonomikoaren edo finantzarioaren gaineko hurbilketa orokorra egitea; aitzitik, pertsona bakoitzak, banaka, sistema horretan moldatzen ikasi behar dutela nabarmentzen da, modu akritikoan.

Hasteko, ekonomiaren eta finantzen alorreko "oinarrizko kontzeptuak" azaldu ohi dira. Baina kontzeptu horietara gerturatzean, ikusiko dugu zenbait erakundek aurrezki-kontua, zordunketa-txartela eta antzeko kontzeptuak darabiltzatela (ADICAE), eta beste erakunde batzuentzat, berriz, ongizate finantzazioa, finantza-segurtasuna eta aberastasuna direla oinarrizko kontzeptuak. (BMBN - CNMV).

Gai batzuk errepikatzen dira erakundeek egiten dituzten proposamenetan, hala nola diru-sarrerak sortu eta babesteko bideak, aurrezteko eta inbertitzeko bitartekoak eta produktuak eta finantza-plangintzak egiteko modua (aurrekontuak edo maileguak administratuta eta pentsio-planak erabilita).

Zenbait erakundek norberaren ezagutzarekin eta garapen pertsonalarekin lotzen dituzte eduki horiek (Probidea, Recetario financiero edo Junior Achievement fundazioa). Erakunde horiek, pertsonen eta finantzen arteko harremanaz hitz egitean, "porrot egiteko beldurra galtzea", "norberaren bizitzaren protagonista izatea, eta ez ikusle hutsa" eta antzeko esaldiak eta trebetasunak nabarmentzen dituzte.

Ekimen horien hezkuntza-ikuspegiak ez du auzitan jartzen ereduak; aitzitik, beldurrak, arriskuak eta arrakastak kudeatzen irakasten du, eta norberak landu beharreko gaiak direla adierazten du ikuspegi horrek, egiturazko alderdiak baztertuta.

14 Honako hauen web-orriak kontsultatu dira: CAIXAbank-EduCaixa, ADICAE, BMBN-CNMV: Finanzas para todos, Kutxabank: Finantzak bizitzeko eta Santander Financial Institute. Beren web-orriak bisitatzeaz gain, telefonoz elkarrizketatu dira honako hauek: BBVA: Valores de futuro, Junior Achievement fundazioa, Probidea, Barmont, Kontsumobide eta Recetario Financiero.

Erakunde horietako batzuek (ADICAE edo Kontsumobide) ikuspegi kritikoago bat erakusten dute produktu eta zerbitzu horiekiko, eta pertsona kontsumitzaileen eskubideen defentsari dagokion prestakuntza ematen dute, datu pertsonalen babesa nabarmenduta. Balore Merkatuen Batzorde Nazionalak, esaterako, gainzorpetzearen arriskuaz ohartarazten du, eta kontsumo konpulsiboa bultzatzen duten publizitate-mezuak hautematen ikasi behar dela adierazten du.

Ekimen horietako askok ekintzailtza bultzatzeko ekintzen berri ematen dute finantzen gaineko heziketarekin batera, eta bestelako gaitasun batzuk garatzen dituzte, hala nola enpresen kudeaketa eta finantzazioaren bilaketa. Adin gazteko pertsonentzat pentsatutako ekintzak dira horietako batzuk, eta enpresa bat sortzeko simulazioak eskaintzen dituzte (Recetario financiero edo BBVA). Besteren batek, berriz, enpresa berri bat sortzeko ibilbide espezifikoekin berri ematen du (Santander Financial Institute).

Ekimen horietan, indibidualismoa eta lehiakortasuna dira ekintzailtzaileentzako aukerak aurkezteko balio nagusiak, eta hori guztia arrakasta pertsonalarekin eta pertsona ekintzailearen ezaugarri ia heroikoekin lotzen da (sormena, berrikuntza, adorea, hobekuntza, etab.). Ekintzailtzaileen beste eredu sozialago batzuen berri ematea falta dutela esan daiteke, posible baita lankidetzaren, talde-lanaren eta baliabideen eta etekinen sozializazioa izatea, besteak beste, bestelako eredu horien oinarria. Horrez gainera, ekintzailtzaileekin dakarrenaren gaineko hausnarketa sakonagoa egin beharko luketela iruditzen zaigu.

3.2. Finantza-hezkuntza eta balio etikoak

Finantza Hezkuntzako Planak azpimarratzen du finantza-edukiak zeharkakoak direla hezkuntza-curriculumean, eta zuzenean laguntzen dutela Konpetentzia Sozial eta Zibikoa eskuratzen. Honako adibide hauek jartzen ditu: *Erabaki ekonomikoaren abantailak eta desabantailak aztertzea • Norberaren gain hartzea erabaki finantzarioen eragin kolektiboaren eta/edo ondorio sozialaren gaineko erantzukizuna • Judizio moralaren erabiltzea • Ulertzea erabaki ekonomiko guztiak ez direla etikoak (kontsumo arduratsua) • Kontzeptu hauen ikuspegi ekonomikoaren gaineko gogoeta egitea: jasangarritasuna, elkartasuna, erantzukidetasuna eta herritartasuna • Egungo gizartearen egoera eta arazoak aztertzea (krisia, finantzen gaineko albisteak) • Gizartearen interdependentsia ekonomikoa, desberdintasunak eta gatazkak ulertzea. • Irtenbide kolektiboak bilatzea. • Solidaritate ekonomikoa eta enpatia.*

Aztertutako finantza-hezkuntzako gaitegi gehienek egiten dituzte alderdi etikoaren gaineko erreferentziak, baina aipamen abstraktuak eta zehaztasun gutxiak izaten dira, eta ez dute garapen handirik: *Dirua ondo erabiltzera daramaten balio etikoak • Dirua norberaren eta gizartearen helburuak betetzeko tresna dela pentsatzea • Adimenez eta arduraz kontsumitzea • Konpartitzearen balioa • Finantza-hezkuntza kritiko eta arduratsua, ongizate finantzarioaren giltzarri den aldetik • Kontsumo arduratsua • Kontsumo jasangarria • Bidezko merkataritza • Balio etikoak • Garapen jasangarria • Ingurumen-inpaktua • Mundua aldatzeko adorea izatea • Etika, globalizazioa eta jasangarritasuna*

Ikusi dugu erakunde batzuek honako hauen gaineko kontzientzia piztu nahi dutela: “diruaren balioa”, “diruaren erabilera egokia” edo “dirua irabazteko modu egokiak” (Probidea, Recetario Financiero).Era berean, aurrezkoa sustatu beharreko balioa dela adierazten da. Hauek dira aipatzen diren beste alderdietako batzuk:

“esfortzuaren balioa”, “konpartitzea”, “solidaritatega”; “zintzotasuna” eta “ardura”.Erakunde batzuek (Junior Achievement fundazioak, esaterako) nabarmentzen dute zer egiteko duten pertsonen komunitatean, “herritar eta langile” diren aldetik.

Erreferentzia etiko horiek zehaztean, “kontsumo arduratsua”, “adimentsua” eta “jasangarria” izaten dira erabiltzen diren kontzeptuetako batzuk.Erakunde gehienek esaten dute, kontzeptu horiek zehaztean, erosteko aukeren gaineko informazio zabala eskuratzeko dela (salneurriak konparatzea, iruzurrak baztertzea, kontsumitzailearen eskubideak defendatzea, etab.), eta aintzat hartzea kontsumo-aukera zehatzek zer ondorio izango dituen norberaren ekonomian (esaten dute, esaterako, ez dela zorpetze gehiegizkorik pilatu behar).Hau da, produktuak edo zerbitzuak eskuratzeko/kontratatzeko prozesuak dakarren erantzukizunari begiratzen zaio, baina ez kontsumo-modu jakin batzuek gizartean duten eragin onuragarriari edo kaltegarriari.

Horrenbestez, ikusten da sistema kooptatzen ari dela kontsumo arduratsuen kontzeptua. Sistema ekonomikoari aurre egin eta hura eraldatzeko aukera moduan sortu zen kontzeptua, baina aldatzen ari da bere hasierako esanahia.

Erakunde batzuen ikuspegiak hausnarketa sistemikoagoak eta kritikoagoak egiten dituzte; hori horrela, solidaritatea eta ingurumenaren zaintza barneratzen dute batzuek kontsumo adimentsuaren gaineko debatean, eta beste batzuek, berriz, kontsumo arduratsua eta jasangarria eta bidezko merkataritza aipatzen dituzte (BMBN-CNMV eta Kontsumobide). Eta ADICAE elkarteak, esaterako, gertatzen diren abusu finantzarioak salatzeko konpromisoa hartu du.

Aztertutako erakunde gehienek ziurtatzen dute finantza-aukera guztiak erakusten dizkietela ikasleei, baina gutxi batzuek aipatzen dituzte bankuez kanpoko finantzak (crowdfunding-a) edo banka etikoa.(Recetario financiero eta ADICAE, hurrenez hurren)

Zuzenean bankaren eta finantzen sektoreetako finantza-prestatzaileak erabiltzeko aukerari begiratuta, bi joera hauek ikusten dira, *horren aurka ageri direnak, pertsonak beren erabaki propioak har ditzaten eta ez dezaten interes konkretuen influentziarik izan (Barymond); eta horren alde ageri direnak, ikasleek egiazko finantzen berri izan dezaten.(Junior Achievement fundazioa)*

Kutxabank, BBVA eta Educaixa erakundeek beren kabuz lantzen dituzte gaitegiak eta beraiek irakasten dituzte ikasgeletan.Hirurek aipatzen dituzte balio etikoak, baina ezin dugu zehaztu zer eduki dituzten landutako gaiak, ez baitaude eskuragarri jende guztiarentzat.

4. FINANTZA ALTERNATIBO SOLIDARIOAK: ZER DIRA FINANTZA ETIKO ETA BANKUEZ KANPOKOAK?

Atal honetan azaldu nahi dugu zer diren finantza etikoak, zer filosofia duten eta zer alternatiba eskaintzen duten. Euskadin ageriko eragina duten arren, herritar gehienek ez dute horien finantza horien berririk.

4.1. Finantza etikoak

Finantza-globalizazioaren, desarauketaren eta etekin espekulatibo handiena iristeko grinaren ondorioz, sistema produktiboaren gainean kokatu da finantza-sistema. Finantza-krisia iritsi zen arte, ez zitzairen askorik begiratzen finantza- eta banku-eragiketen ondorioei (eta ez, soilik, ikuspegi etiko batetik, ezta epe luzeko ikuspegi ekonomikotik ere), eta, gardentasunik ageri ez zen arren, gero eta sofistikazio tekniko handiagoaren pentzutan uzten ziren etorkizuneko ondorio horiek. Finantza-ingeniaritzako adituek eta erregulazio-erakundeek beraiek aitortu zuten ez zirela gai izan baimendu eta zirkulazioan jarri zituzten produktuen alderdi eta ondorio guztiak kontrolatzeko.

Oinarrizko egitekoa du finantza-sistemak ekonomian, finantza-bitartekaritza egitekoa. Horrez gainera, finantzek erabakitzen dute, neurri handi batean, nolakoa izango den gizartearen eredu, soberazko diruari ematen zaion erabileraren arabera.

Honako hauek dira, krisi-garaiari eta eremu espainiarri begiratuta, banku-sektorearen merkataritza-negozioak sortu dituen ingurumen-ondorio eta ondorio sozialetako batzuk¹⁵:

- Familien eta enpresa txiki eta ertainen gainzorpetzea
- Finantza-bazterketa (baliabide gutxiko pertsonak, gutxiengo etnikoak, ikasleak, aniztasun funtzionala duten pertsonak, landa-eremuetako biztanleak, emakumeak)
- Etxegabetzeak
- Enpresen eta enpleguen galera: enpresa txiki eta ertainen finantza-inklusioa
- Produktu 'toxikoak' eta familien aurrezkien galerak
- Kapitalen zuriketa
- Finantza-sektore eta giza eskubide globalak

¹⁵ Principales riesgos sociales y ambientales del negocio bancario en tiempos de crisis. (Telefónica-UNED katedra, Erantzukizun Korporatibo eta Iraunkortasuneko. Mugarik gabeko Ekonomialariak erakundeak egina).

- Elikagaien krisia
- Gatazka armatuak eta legez kontrako armak
- Zor publikoarekin egindako eragiketak
- Ingurumen-inpaktua
- Klima-aldaketa eta berotegi-efektuko gasen igorpenaren murrizketa

Mendekotasuna dakarten beste modu batzuk daude, zeinak, eragiten duten desberdintasun-egoeraren ondorioz, eragotzi edo mugatu egiten duten emakumeek finantza-eremuari dagozkion baliabide ekonomikoak edo zerbitzuak eskuratzea. Genero-arrazoiek eragindako finantza-bazterketari begiratuta, adierazi behar da pertsona bat bankuan sartzen denean, emango dioten arreta baldintzatuko duela gizona edo emakumea izateak¹⁶. Emakumeei, oro har, gizonezkoei baino baldintza gehiago betetzea eskatzen zaie, eta gizonei eskatzen ez zaien informazio pertsonala eta lan-arlokoa eskatu ohi zaie. Emakumea kreditu-eskatzailerik denean, kuestionatu egiten da bere egoera, kreditu hori negozio baterako baldin bada. Era berean, abal-jartzaile baten bermea izatea eskatzen zaio emakumeen erdiari, baina eskakizun hori ez da hain ohikoa gizonentzat. Emakumeen gaitasunarekiko mesfidantza horren beste ondorio bat da gizonezkoek baino baldintza okerragoak izaten dituztela hipoteka-maileguetan.

Ekonomia bitarteko bat dela aldarrikatzen du ekonomia solidarioak, eta ez dela helburu bat. Pertsonen eta komunitateen garapenaren zerbitzura izan behar duela aldarrikatzen du, eta pertsonen bizi-kalitatea eta gure gizarte-ingurunea hobetzeko tresna izan behar duela.

Diruaren balio soziala berreskuratzeko helburua hartuta, finantza-sektoreak egiteko bat izan behar du ekonomia solidarioan, bai aktiboko politiken bidez, kredituak emanez eta inbertsioak eginez, bai pasiboko politiken bidez, nolako produktuak izango dituen zehaztuz. Inbertsio produktiboetarako bidea ireki behar dute kapital-mugimenduek, gaur egun horietako asko mugimendu espekulatiboak baitira. Gizarte osoarentzat onuragarri diren mugimenduak lehenetsi behar dira, errentagarritasun finantzarioari bakarrik begiratu gabe.

Finantza etikoen izaera politikoa eta pertsonen askatasunen ekitatezko banaketa ez-baztertzaileraren aldeko konpromisoa dira krediturako eskubidearen alde egiten duen lanaren lehen urratsa, eskubide hori eskubide-berme dela ulertzen duen aldetik; hau da, beste eskubide batzuk ahalbidetzen edo bermatzen dituen eskubide bat dela pentsatzen duen aldetik. Hori horrela izanda, beste bitartekaritza-zirkuitu batzuk abiarazten saiatzen da, eskubide hori aitortzeko. Kredituaren gaineko ikuspegi hori dutenez, bizitzaren iraunkortasuna eta zaintza-espazioen ikuspegia lehenesten dute finantza etikoek. Finantza etikoen kezka nagusia ez da, noski, etekinak lortzea eta kapitala pilatzea. Indarrean daudenez bestelako logika eta harreman-modu batzuk daude finantza etikoen emantzipazio-ahalmenaren oinarrian. Konfiantzaneta bizitzaren zaintzan etairakuntasunean oinarritzen dira harreman horiek, eta ezinbesteko dute boterea deskolonizatzea, ezagutzeko eta egiteko beste modu batzuk bideratzeko, menderakuntza moderno, androzentriko

¹⁶ Finantzak eta Genero Desberdinkeriak. Setem Hego Haizea,

eta kapitalistatik urrunduta. Dirua ez da, berez, premiazko baliabidea, merkatua beharizan jakin batzuk asetzeko bide bakarra izaten denean soilik bihurtzen baita dirua beharizanen asetzailer ezinbesteko (Pérez, 2004:110).

Finantza etikoek balio eraldatzailea izango baldin badute, hausturako ekonomia feministaren eskemak indartu behar dira eta ekonomiaren esanahia doitzeko prozesu bat sustatu behar da, menderakuntzako kode patriarkalak eta diruaren eta finantza-harremanen neutraltasun faltsua salatzen. Gertutasuneko zirkuitu ekonomikoaren eta laguntza-sareen balioa aitortzen dute finantza-etikoek. Gertutasunean, konfiantzan eta solidaritate deszentratuan oinarritzen dira sare eta zirkuitu horiek.

4.2. Banka etikoa

Banka tradizionalarekin kritikoa den mugimendua da banka etikoa, eta bere helburua da dirua ekonomia errealearen zerbitzura jartzea, bateragarri egiteko bideragarritasun ekonomiko eta giza eskubideekiko eta ingurumenarekiko begirunea. Tresna den aldetik, egungo eredu ekonomiko eraldatzeko xedea du: merkatu kapitalistaren arauak aldatu nahi ditu gardentasunaren eta ingurumen- eta gizarte-erantzukizunaren bidez, lurraldean oinarritutako kudeaketa bat eginda, eta lurraldean bizi diren pertsona guztien arteko lankidetzara bideratuta. Banka etikoaren sorrerarekin, finantza-sistema berri bat eratu da, eta hiru onura hauek lortzeko bidea urra dezakegu, aurrezkien eta inbertsioen bidez: gizarte-onurak, onura ekonomikoak eta ingurumen-onurak.

Fiare Banca Etica da horren adibidea, eta bere manifestuak¹⁷, dioenari erreparatuta, eraldatzeko eta gizarte-sustapenerako tresna izateko sortu da. Kultura ekonomiko, finantzario eta sozial berri bat sendotzeko xedea du. Irabazi asmorik gabeko erakundeek osatzen dute banka etikoa, eta gizartearentzat balio erantsia duten proiektuetan soilik inbertitzen dute. Horrela jokatuta, pertsonen eta komunitatearen beharizanei erantzuten diete. Banka tradizionalan ez bezala, herritarren partaidetza funtsezkoa da banka etikoan. Jardueraren parte dira herritarrak, erabakiak hartzen eta kudeaketa-lanetan parte hartzen baitute. Parte-hartze aktiboa izaten dute, eta beren kontsumo-erabakiek eta aurrezkiek dituzten ondorioez jabetzen dira, ez baitira soilik ondorio ekonomikoak. Beren gain hartzen dute jarduera horien erantzukizuna.

4.3. Bankuek besteko jarduerak eta mikrofinantzak


Gaur egun, finantza alternatiboaren gaineko hezkuntza eta sentsibilizazioa da ekonomia solidarioa lantzen duten erakundearen erronketako bat. Bankuek kanpoko jarduerak dira finantza alternatibo horien adibide. Banka tradizionalak lantzen ez dituen finantza-zirkuituek osatzen dute hura, finantza-erakundeek ez baitute pertsona eta proiektu

¹⁷ <https://www.fiarebancaetica.coop/sites/fiarebancaetica.com/files/documenti//manifiesto-politico.pdf>

ugarik dituzten beharrizanak asetzen, laguntza behar duten horiek, maiz, ez dituztelako "eskatutako baldintzak" betetzen. Hori horrela dela ikusita, askotariko ekimenak abiarazi dira araututako banku-sistematik kanpora, hala nola kredituaren ordezkotako eragiketa eta zerbitzu askotarikoak, gordailuak eta ordaintzeko eta transferentziak egiteko bitartekoak. Orain arte, jarduera horiek banku-jarduerak ziren, gehien-gehienetan.

Mikrofinantzak dira abiarazitako jarduera berri horietako bat. Baliabide ekonomiko gutxiko pertsonen zuzendutako mailegu txikiak dira, finantza-sistema komertzialetik kanpo geratu ohi baitira, zailtasun ekonomiko horiengatik. Mailegu horien helburua da autoenpleguko proiektu txikiak abiatzeko edo abian dituzten proiektuak bultzatzeko aukera ematea, diru-sarrerak sortu eta beraien eta familiaren bizi-maila hobetzeko. Dirua, maiz, garapen-proiektuak finantzatzeko erabiltzen da, eta itzultzekoak ez diren funtsekin osatzen dira diruz, maileguen bidez, lagundu diren ekintzak.

Euskadin, bankuez besteko jarduerak egiten dituzten erakunde batzuk daude, hala nola Koop57, FIARE, Oikocredit eta Elkarcredit. Erakunde horiek darabiltzaten lan-irizpideek ez dute inolako zerikusirik banku komertzialak darabiltzanekin, banku komertzialak dirua kolokatzeko premiaren arabera jokatzeko baitu, denbora luzeko zorpetzeak sortzen baititu, eta berme eskuragaitzak edo arriskugarriak proposatzen baitizkie pobretutako sektoreei.



5. FINANTZA ETIKOEN ETA BANKUEZ BESTEKO FINANTZEN GAINEN HEZKUNTZA

Atal honetan, azalpen orokor bat ematen dugu finantza alternatibo solidarioen gaineko hezkuntzaren beharrezko justifikatzeko. Talde eragileak konpartitutako prozesu baten emaitza da, eta hainbat iturri berrelikatu ondorenean gauzatu da. Alde batetik, gaiak, edukiak eta metodologiak identifikatzeko lagungarri izan dira finantza-hezkuntzaren eta hura irakasten duten eragileen egoera. Bestetik, argigarriak izan dira Word Café ekitaldian egindako hausnarketak eta Hegoaldeko eragileekin egindako elkarrizketak, funtsezko gaiak ikertzen lagundu baitute.

5.1. Zergatik eman behar da finantza etiko eta alternatiboaren gaineko hezkuntza?

Honako hau adierazten du Euskadin indarrean den hezkuntza-araubideak, *hezkuntzaren helburua da gizakiaren gaitasunak ahalik eta gehien eta dimentsio guztietan garatzea, subjektu indibidualak eta pertsona aktiboak izateko, garapen jasangarriarekin eta ingurumenarekin konprometituta*¹⁸.

Oinarriko konpetentziak lantzen ditu hezkuntza-sistemak, eta hori baliatzen du balio etikoak (elkartasuna, lankidetzeta, ekitatea eta beste asko) irakasteko eta ikasleen irizpide edo kriterio propioak sustatzeko. Hala ere, nagusi den eredu ekonomikoaren printzipioak eta balioak (lehiakortasuna, indibidualismoa, irabazpide pribatua oinarritutako arrakasta pertsonala eta epe motzeko ikuspegia, besteak beste) errepikatzen dira hezkuntza-sisteman eta curriculumen garapenetan, eta horrek moldatzen du ikasleek errealitatearen gainean duten ikuspegia

Ekonomiaren profesionalizazioa dago kapitalismoaren jatorrian, eta hausnarketa moralak bazterreraz uzten dira “ekonomiarenak” merkatura eta merkatuaren ondorio monetarioetara mugatzen direnean. Baina ekonomiaren jardura ez da adierazpen monetarioa mugatzen, esparru monetariotik kanpoko alderdiak baliatu behar baitira gizakien beharrezkoak asetzeko. Eduki eta eztabaida berriak behar ditugu ikasgeletan, gazteek oraingoa baino konpromiso handiagoa izan dezaten egitura ekonomiko eta sozial bidezkoak eraikitzeko lanarekin, desberdintasun-egoeren aurkako borrokarekin, ingurumenaren babesarekin, emakumeen ahalduzkoekin, gobernantza demokratikoarekin eta giza eskubideen erabilerekin. Horrenbestez, Ekonomiaren bestelako “ezagutza” bat erreklamatu behar dugu, Ekonomia Politikoaren jatorrira bueltatzeko, gizarte-zientzien barruan.

Konpetentzia finantzarioa izateko, ezinbestekoa da finantza-krisiak eta horien arrazoiak ulertzea, eta jakitea, besteak beste, zer ondorio dituen ekonomia espekulatiboak. Finantza-hezkuntzak ez du alderdi horiek lantzeko ohiturarik, eta, ondorioz, finantzen gaineko ikuspegi partziala ematen du. Banka pribatuak bere egin ditu finantza-hezkuntzako programak, eta programa horien edukiek erdian jartzen dute norberaren dirua kudeatzeko jardura, hezkuntza horren helburua dela nabarmenduta. Horrek agerian uzten du

¹⁸ Heziberri 2020. EAEko eredu pedagogikoaren hezkuntza-esparrua.

zer-nolako garrantzia duen ekonomia finantzarioak ekonomia errearen gainean, eta zer influentzia handia eragiten duen lobby finantzarioak. Kontua ez da, soilik, ikuspegi jakin batzuk barneratzen eta lehenesten direla itxuraz neutralak diren edukien bidez. Horrez gainera, marka-irudi bat inposatzen da, eta irudi horrek, egoera onenean ere, baldintzatu egiten ditu kontsumitzaile izan daitezkeen pertsona ugariaren hautuak.

Gaur egun, ekonomia bera eta finantzek sisteman izan beharko lituzketen egitekoak ulertzeko bestelako moduak proposatzen ari dira zenbait paradigma ekonomikok. Hezkuntzak sustatu behar dituen balio etiko eta sozialen aldera lerratzen dira ikuspegi horiek, eta ikasleek beren ingurunean ikusten dutenarekiko ikuspegi kritikoa izatea sustatzen dute.

Ikuspegi horri atxikita, jardun-modu eraldatzailea da ekonomia sozial eta solidarioa; aurre egiten baitio jarduera ekonomiko globalaren eredu konbentzionalari, eta kapitalari eta haren pilaketari baino garrantzi handiagoa ematen baitie pertsonari, haien beharrez, haien beharrez, gaitasunei eta lanari. Era berean, eredu sozioekonomiko ekitatezko eta bidezko bat aldarrikatzen du.

“HERRITAR KRITIKOAK PRESTATZEKO, KOMUNIKAZIOAK LANTZEKO ETA ALTERNATIBAK BILATZEKO, SISTEMA FINANTZARIOAREN ETA EKONOMIKOAREN FUNTZIONAMENDUA ULERTU ONDOREN” (WORLD CAFÉ)



“ELKARREKIN LOTUTAKO KONTZEPTUAK LANTZEKO BALIO BEHAR DUTE FINANTZEK: AURREKONTU PUBLIKOAK, GIZARTEAREN ONGIZATEA LORTZEA, BANAKETA EGOKIRIK GABEKO HAZKUNDE EKONOMIKOAK KUESTIONATZEA...” (WORLD CAFÉ)

Finantza etikoen eta bankuek besteko finantzen hainbat ekimen jarri dira abian tokian-tokian, estatuan eta nazioartean, eta adibide bat dira ikasleentzat, diruaren bestelako erabileren ereduak ezagutu baititzakete horien bidez. Komunikatzeko eta jendearengan eragiteko gaitasun handia dute banku eta erakunde tradizionalak (publizitatea, ekitaldien babesletza eta bestelako bitartekoak erabiltzen dituzte helburu horiek lortzeko), eta horren ondorioz, ezinezkoa dirudi finantza-bitartekaritzarako eta truke ekonomikorako beste modu batzuk izan daitezkeenik sinestea.



“TOKIKO FINANTZEN BIDEZ, BALIO BERRIAK SORRARAZTEN DITUGU GIZARTEAN, KOMUNITATEA ERATZEN DUGU, (...) JENDEAK IKUSTEN DU PERTSONEN BIZITZA HOBETZEKO MODU BAT DIRELA FINANTZAK” (COMPARTÉ SAREA)

“GEUK EGITEN EZ BALDIN BADUGU, BANKUEK EGINGO DUTE, ETA EGITEN ARI DIRA JADA, ETA HAIEN INTERESATZEN ZAIENA IRAKASTEN ARI DIRA IKASLEEI” (WORLD CAFÉ)

Ikuspegi hori gai konkretuetan baliatzea komeni da, hezkuntzaren hartzaile izango direnen, ikasleen, eguneroko bizitzarekin lotura izan dezaten. Hezkuntza horren bidez, gaur egun dauden produktu eta zerbitzu finantzarioak (tradizionalak eta alternatiboak) ezagutzeko eta ulertzeko konpetentziak landu behar dituzte ikasleek, eta horien gaineko hausnarketa kritikoa egin behar dute, irizpide propioak erabilita. Izan ere, ekonomiaren eta finantzen gaineko ikuspegi alternatiboak proposatzeko, ezin ditugu alde batera utzi sistemaren esparru orokorra eta hark eskaintzen dituen tresnak, esparru horretan jardungo baitira gazteak.

“JENDEAK EZ DAKI NOLA ERABILTZEN DIREN TRESNA OINARRIZKOENAK. JENDEAREN ONDOAN IZAN BEHAR DUGU IKASTEKO PROZESUAN.(...) PRESTAKUNTZA INSTRUMENTALIK GABE, EZIN DUGU PRESTAKUNTZA ETIKORIK EMAN”
(JORGE BEREZO, OIKOCREDIT)



“FINANTZEI BURUZ HITZ EGITEAN, TXANPONAREN IFRENTZUA ERAKUTSI BEHAR DA. FINANTZA-SISTEMAREN INTERPRETAZIO OKERRAREN ONDORIOZKO ABUSUAK, IRUZURRAK... EKIDIN BEHAR DIRA.(...) INTERESEI BURUZ HITZ EGITEAN, EZ DUGU MUGATU BEHAR INTERESA ZER DEN AZALTZERA, ETA BERMEEKIN, ABALEKIN, ZORU-KLAUSULEKIN ETA GAINERAKOK ALDERDIEKIN IZANDAKO ARAZOAK AIPATU BEHAR DITUGU...” (WORLD CAFÉ)

5.2. Nola eragin behar dugu hezkuntza-esparruan?

Aho batez adierazten da ezinbestekoa dela gizarte-esparru guztietan lan egitea, biztanleriaren sektore guztietara iristea: gizartearen partaide dira haurrak eta nerabeak.



“HEZKUNTZAK EZIN DU DENA EGIN, MUNDU GUZTIAK EKIN BEHAR DIO LAN HONI” (WORLD CAFÉ)

Bide horretan, ezinbestekoa da, noski, erakunde publikoen laguntza eskatzea, prestakuntza-curriculumeko edukien eta ikuspegi ideologikoaren gaineko konpromisoak har ditzan, eta curriculum horrek finantza etikoen eta bankuez besteko finantzen aukera ikusaraz dezan.

Hezkuntza-komunitate osoa (ikasleak, gurasoak, eskola-kontseiluak, familiak, guraso-elkarteak, etab.) prozesu horretan barneratuko baldin bada, profil bakoitzera egokitu behar dira edukiak eta metodologiak, eta horien arteko loturak erraztu behar dira: herritarren mobilizaziorako espazioak dinamizatu behar dira, esperientzien trukaketak egin behar dira, orientazio-tresnak prestatu behar dira irakasleentzat, lankidetzan aritu behar da gazteen eta ikasleen elkarrekin...

“PERTSONEN BIZIPENETARA IRITSI ETA HORREN GAINEAN ERAKITZEA HEZKUNTZA MOTA HORI” (WORLD CAFÉ)



Finantza alternatiboen gaineko hezkuntzan zer material didaktiko berariazko erabil daitezkeen jakiteko, egun daudenetako batzuk erabil daitezke (1. eranskinean adierazten dira), baina baldintza hauek bete behar dira: a) alde batetik, hezkuntza-testuinguru konkretuak eta indarreko curriculum-edukiak izan behar dira kontuan haiek ikasgelan barneratzen laguntzeko, baina agiri honetan zehar adierazten ari garen moduan, esparru hori gainditu behar da, ikuspegi kritiko batetik heltzeko ekonomia osoari; eta b) diziplina anitzeko eta zeharkako ikuspegi bat erantsi behar zaie material horiei, baina ikasleen egoera edo errealtate konkretuekiko lotura eginda.

Formatuei begiratuta, gaur egun ikasgeletan finantza-hezkuntza irakasten ari diren erakundeek formatu oso erakargarriak eta berritzaileak erabiltzen ari dira (jolasak, simulazioak, rol-jokoak, etab.), eta inspirazio-iturri izan daitezke gure helburuak betetzeko.

Ikasleek ikuspegi ekonomiko ez-hegemonikoak ezagutzeko eta bizitzeko aukera izan behar dutela diogunean, erdigunean jarri behar dira pertsonak, gertuko eta eguneroko bizitzako egoeretatik abiatuta. Pertsona ez zaie finantza-produktuen erabiltzaile edo kontsumitzaile moduan ikusiko, bai, ordea, eragile aktiboen moduan, beren gizarte-errealtatea ezagutzen eta errealtate horretan esku hartzen duten pertsonen moduan. Finantzen ikuspegi hori barneratu behar du metodologiak.




“PERTSONENTZAKO EKONOMIA IZATEA, HORI DA FUNTSEZKOA HEZKUNTZAN.GAUR EGUN, ORDEA, FINANTZA-HEZKUNTZA KONTSUMITZAILEEI ZUZENDUTA DAGOELA USTE DUGU” (WORLD CAFÉ)

Esate baterako, beren hipotekak ordaindu ezinik izan diren pertsonen lekukotza zuzena entzunez gero, finantzen zenbait alderdiren gaineko hausnarketak sor daitezke, normalean lantzen ez diren alderdiei buruzkoak. Horren bidez, errealtatean gertatzen denaren gaineko ulermen eta inplikazio handiagoak gara ditzakete ikasleek. Horretarako, indartu egin behar dira banku tradizionalen jardunbide okerrak eta horien ondorioak salatzen dituzten erakundeen eta banka etikoa eta bankuez besteko finantzak sustatzen dituzten erakundeen arteko sareak.

“INPORTANTEA DA GURETZAT INGURUNEN BIZIPENEKIN LOTZEA PEDAGOGIA” (ACAPRODUSCA, EL SALVADOR)



Finantza-sistemaren eta ikasleen bizi-etapen arteko loturari erreparatzen diote finantza-hezkuntzako programek, eta horren erakusle da paga nola kudeatzen den edo banku-kontu bat nola ireki dezaketen erakusten zaiela ikasleei. Ikasleek erraz barnera ditzakete eduki horiek, beraien eguneroko bizitzan gertatzen zaizkienak direlako. Helburu hori bera hartuta, gizarte-arazoak sistematizatu eta egoera errealean simulazioak egin daitezke, dinamika ludikoak eta parte-hartzaileak erabilia, gai eta printzipio ekonomikoen gainerako hausnarketa kritikoa piztarazteko.



“INORK EZ DITU ULERTZEN BANKUETAKO ETA FINANTZEN ALORREKO TESTUAK, ETA HERRI-HIZKERA, HIZKUNTZA ERRAZA ERABILI BEHAR DA, KOMUNIKATZEKO, INFORMATZEKO, ELKARRI ESATEKO...” (WORLD CAFÉ)

5.3. Edukiak

Atal honetan epigrafe orokor batzuk proposatuko ditugu, iruditzen baitzaigu “finantza-hezkuntza” izendapenean sartzekoak direla, hezkuntza horrek ikuspegi holistikoa eta kritikoa izateko eta finantza etikoen ikuspegia barne hartzeko.

Hausnarketa sustatzea da helburua, bai hezkuntza-sisteman “finantzen gaineko hezkuntza” barneratu behar den eztabaidatzeko, bai finantza alternatiboen ikuspegitik landutako erantzun bat emateko. Beste helburu bat da 1. eranskinean adierazten diren hezkuntza-baliabideak lehenesten, horien kopurua handitzen eta garatzen laguntzea.

1.-Hezkuntza ekonomikoa vs finantza-hezkuntza.

Ekonomia gizarte-zientzia moduan ulertuta, aurre egiteko Ekonomiaren irakaskuntzak, botere ekonomikoaren laguntza ordainduarekin, monopolio moduan ageri duen pentsamendu bakar, alde bakarreko eta betiberdinari, botere hori legitimatzen laguntzen duen aldetik¹⁹. Arauen eta lehentasunen gainean funtzionatzen du ekonomiak, eta pertsona edo gizarte-taldeek duten eragin-gaitasunak baldintzatzen du; beraz, ez da neutrala. Ez da neutrala, era berean, ekonomiaren irakaskuntza eta hezkuntzak egiten duen ekarpena ikasleak bere ezagutza kritikoa gara dezan eta gizartearen eraldaketan eragiteko tresnak landu ditzan. Finantza-sistemak ezin du sistema ekonomikorik gabe bizi, sistema ekonomikoaren tresna baita. Era berean, giza eskubideen kontua da, eta ez auzi finantzarioa, pertsona guztiek izatea oinarrizko ondasunak eta zerbitzuak (osasuna, hezkuntza, ura, energia, justizia) eskuratzeko aukera eta horiei guztiei eusteko nahikoa baliabide izatea. Kontzeptu ekonomikoen bidez adierazita, fiskalitate-kontua da herritarrentzat, zerga bidezkoak eta nahikoak izatekoa²⁰.

¹⁹ “La Enseñanza de la Economía” dosierra, Mugarik gabeko Ekonomialariak

²⁰ Educación financiera o educación fiscal y tributaria (Rodolfo Rieznik, El diario.es, 09/06/2017)

Ekonomia sozial eta solidarioaren ikuspegitik, bitarteko bat da ekonomia, ez helburu bat. Pertsonen eta komunitateen garapenaren zerbitzura dago, eta pertsonen bizikaltatea eta gure gizarte-ingurunea hobetzeko tresna izan behar du. Pertsonen zerbitzura izango den ekonomia, pertsona guztien partaidetzarako aukera emango duena, kontsumitzaile izatera mugatu gabe. Enpresak, eragile ekonomikoak den aldetik, helburu berari jarraitu behar dio, eta bere enpresa-erabakiak hartzeko analisisetan, egiten dituen jarduerak giza eskubideengan duten eraginari begiratu behar dio.

Ekonomia feministaren ikuspegitik, ekonomian barneratu behar dira biziraupenerako, ongizaterako eta erreproduzio sozialerako lan guztiak, eta zabaldu egin behar ekonomia-ikuspegi merkantilista, zaintza-lanak barneratzeko eta biziaren zaintza izateko ekonomia-ikuspegiaren helburuetako bat.

2.-Finantza-kontzeptuen analisi kritikoa

Finantza-sistema. Hitz/gai gakoak: Finantzen egiteko sistema ekonomikoan, ekonomia-ikuspegiaren finantziarizazioa (ekonomia erreala ala espekulatiboa?), globalizazio finantzarioa eta interdependentzia, finantza-krisiak, bidezko zerga-sistema eta aurrekontu publikoak.

Dirua. Hitz/gai gakoak: jatorria (truke-bitartekoa ala berezko xedea?); dirurik gabeko trukeak (moneta soziala, denbora-bankua), diru-sarrerak sortzeko modua (lana eta enplegua sinonimoak?, oinarritzko errenta, zaintza-lanak, eskubide ekonomikoak, sozialak eta kulturalak, prestazio publikoak), dirua modu etikoa lortzea (diru erraza, epe motzeko ikuspegia, espekulazioa).

Aurrezki-inbertsioa. Hitz/gai gakoak: Aurrezkiaren erabilera (bankuen abusuak eta jardunbide okerrak; enpresen inpaktu sozial eta ingurumenekoak, bankuen inbertsio-irizpideak, inbertsio espekulatiboak), etekina (ez soilik diruzkoa), aurrezki eta inbertsioa "bozka-izaera" izatea merkatu-ekonomian.


Diru-sarrera eta gastu publikoak. Hitz/gai gakoak: tributua eta zerga-hezkuntza, ondasun publikoak, zergak, zerga-saihestea eta zerga-ihesa, desparekotasuna, birbanaketa, ordaintzeko gaitasuna, gastu publikoaren finantzazioa.

Kreditua. Hitz/gai gakoak: krediturako eskubidea (beste eskubide batzuk ahalbidetzeko eskubidea); zorpetzea (kontsumismoa, publizitatea, beharrezkoak).

Kontsumoa. Hitz/gai gakoak: erosteko erabakia (prezioaz gainera aztertu behar diren irizpideak), indarreko kontsumo-ereduaren ondorio sozialak eta ingurumenekoak (norberaren erantzukizuna gizartearen eraldaketan), baldintzapen sozialak kuestionatzea, zerbitzu publikoa vs zerbitzuen prestazio pribatua.

3.- Finantza etikoak eta bankuez kanpokoak.

- Ekonomia sozial eta solidarioaren esparruko finantzak.
- Gizarte-errealitatearen testuinguruan (ingurumena, generoa, desparekotasuna, ipar-hego harremanak) txertatutako dirua eta finantzak.
- Dirua eta aurrezki-inbertsioa, gizarte-eraldaketarako tresna.
- Kontzeptuak berezkoztea: kontsumo arduratsua eta bidezko merkataritza.
- Aurrezki eta kreditua banku-sistemaren eksklusibotasunetik disoziatzea eta horiek beste formula komunitario batzuetara zabaltzea.
- Kredituaren eskurapena, garatzeko aukera izan dezaten pertsonak eta gizarteak, printzipio hauen baitan: demokrazia, berdintasuna, elkartasuna, jasangarritasuna, lurralde-sustraitzea eta dimentsio komunitarioa.
- Finantza tradizionalen eta finantza etikoen arteko aldeak.
- Esperientzia alternatibo konkretuak.



6. KONKLUSIOAK

Honako konklusio hauek nabarmendu nahi ditugu:

1. Finantza Hezkuntza hezkuntza-curriculumeko irakasgai berariazko bihurtzeko urratsa ematean, kontuan izan behar da finantzen alorreko gaikuntza zer den zehazteko erabiltzen den paradigma ekonomikoak ageriko arriskuak ekar ditzakeela, eredu edo paradigma horrek erabakiko baitu zer eduki izango dituen prestakuntza-programak, zer eduki geratuko diren kanpoan eta nork erakutsiko dituen. Arrisku horietatik, honako hauek azpimarratzen ditugu:

- Finantza-erabakiek gizartearen ongizatean dituen ondorioak ezkutatzea.
- Finantza-erakunde pribatuek eta beren finantza-sistemak inpartzialtasunik ez izatea hezitzaile-rolan.
- Finantza-arriskuen erantzukizuna pertsonen gainean ardatzea, eta, horrela jokatuta, status quo-a zilegitzea eta herritarren immobilismoa sustatzea.
- Sistema ekonomikoaren gaineko ikuspegi hegemonikoa balioestea, eta adieraztea finantzak tresna bat direla modu pribatuan eta indibidualean kudeatzeko eta ziurtatzeko baliabide publikoen bidez eskura daitezkeen eskubideak edo jardun kooperatiboaren bidez iritsi daitezkeen esparruak.

2. Konpetentziak, sen kritikoa eta heldutasuna eman behar dizkie hezkuntza-sistemak ikasleei, beren ingurunean molda daitezen; aintzat hartuta, beti, finantzek gero eta garrantzi handiagoa dutela ingurune horretan. Horregatik, hain justu, eguneroko bizitzan erabiltzen diren finantza-tresnen lanketa praktikoa egiten baldin bada ikasgelan, ikasgelara hurbilduko da gizarte-errealitatea. Hala ere, ezin da ikuspegi pedagogiko hori baliatu Finantza Hezkuntza gaur egun lantzen den moduan barneratzeko hezkuntza-sisteman. Sistema ekonomikoaren parte dira finantzak, eta sistema hori irakatsi behar da ikastetxeetan, ikuspegi kritikoa eta holistikoa hartuta, eta balioekin eta gizarte-kontzeptuarekin duen lotura jorratuta.

3. Finantza-hezkuntza curriculumean sartu denez, gure ikuspegiaren ekarpena egin behar dugu finantza etikoak eta bankuez kanpokoak lantzen ditugunok, espazio hori ez dadin izan beste eragile batzuen monopolioa. Hezkuntza-proiektuaren parte izango baldin bada finantza-hezkuntza, funtsezkoa da honako alderdi hauek barnera ditzala eskatzea: alde batetik, finantza-sistemaren eta banku-eragiketen ondorio pertsonal, sozial eta ingurumeneko gaineko sentsibilizazioa, eta, bestetik, erantzukizun indibidualak eta kolektiboak izendatzea, gizarte bidezkoa eta solidarioa eraikitzeko bidean.



7. ESTEKA INTERESGARRIAK

“Zure diruarekin” dokumentala, Setem Hego Haizea <http://www.mobiolak.org/con-tu-dinero-2/>

Biggeri, U. (2014). El valor del dinero. Banca, finanzas y ética más allá del mito del crecimiento. Sal Terrae.

Fernández Izquierdo, M.A. (ed.) (2010). Finanzas sostenibles. Netbiblo.

Sasia, Pedro M. y De la Cruz, C. (2008). Banca ética y ciudadanía. Trotta.

Red de Economía Alternativa y Solidaria <http://www.economiasolidaria.org/>

Donostiako Kontsumo Kontziente eta Eraldatzailearen aldeko Sarea <http://saretuz.eus>

ATTAC. Justicia Económica Global <http://www.attac.es/>

Olatukoop <http://olatukoop.net/>

Hipoteka-maileguk kaltetutakoen plataforma <http://afectadosporlahipoteka.com/>

Setem Hego Haizea Finantza Etikoen kanpaina <http://finanzaseticas.org/>

“Principales riesgos sociales y ambientales del negocio bancario en tiempos de crisis” (Telefónica-UNED katedra, Korporazio Erantzukizun eta Iraunkortasuneko. Egilea: Mugarik gabeko Ekonomialariak) <http://ecosfron.org/wp-content/uploads/Cuadernos-Impactos-SF-1.pdf>

“Finantzak eta Genero Desberdinkeriak” Setem Hego Haizea http://www.setem.org/setem_ftp/euskadi/FinanzasyGenero_cast.pdf

“La Enseñanza de la Economía” dossiera. Mugarik gabeko Ekonomialariak. <http://ecosfron.org/portfolio/dossier-no15-la-ensenanza-de-la-economia/>

Finanzas para una economía humana sostenible: hacia la banca ética. (Enpresen Zuzendaritza eta Administrazio Aldizkaria. 20. zk.) https://www.ehu.es/documents/2069587/2114611/20_8.pdf

No a la educación financiera en la escuela. (Jose Antonio Marina, El Confidencial, 04/07/2017) https://www.elconfidencial.com/alma-corazon-vida/educacion/2017-07-04/no-educacion-financiera-escuela_1409017/

Educación financiera o educación fiscal y tributaria (Rodolfo Rieznik, El diario.es, 09/06/2017) http://www.eldiario.es/zonacritica/Educacion-financiera-educacion-fiscal-tributaria_6_652744755.html

Red para la financiación alternativa ENCLAU <http://enclau.org/>

FETS-Financiación Ética y Solidaria <http://fets.org/>

8.ERANSKINAK

1.Eranskina: Finantza etiko eta alternatiboei buruzko material didaktikoak

UNITATE DIDAKTIKOAK Zure diruaren garrantzia FIARE 2012	
Nori zuzendua:	DBH 4
Behar den denbora:	50 minutuko 2 saio
Hizkuntza:	Euskara, Gaztelania.
Formatua:	PDF, 26 or.
Edukiak:	Kontsumo arduratsua; Banka etikoa.
Ahulguneak:	Irakasleen inplikazio handia behar du, baina ez du azalpen handirik ematen; beraz, alde aurreko ezagutzak izan behar dituzte. Ez dago eguneratuta. Edukiak azalekoak dira eta materialak ez dira oso erakargarriak.
Indarguneak:	Ikasleek parte-hartze handia izateko aukera ematen du. Power Point formatuko aurkezpen bat dakar, irakasleak erabiltzeko.
Erabilgarritasuna:	Eranskinak nabarmentzen dira: aurreztaile-mota bakoitzaren eta banka etikoaren ezaugarriak identifikatzeko testa eta kausa-efektu loturak egiteko dinamika bat.
UNITATE DIDAKTIKOAK Ekonomia, aldaketaren eragilea FIARE 2012	
Nori zuzendua:	Batxilergoko 2. maila
Behar den denbora:	50 minutuko 2 saio
Hizkuntza:	Euskara, Gaztelania.
Formatua:	PDF, 23 or.
Edukiak:	Etika eta ekonomia; Banka etikoa.
Ahulguneak:	Lanketa sakonagoa izan dezakete edukiek Batxilergoko 2. mailan. Irakasleen inplikazio handia behar du, baina ez du azalpen handirik ematen; beraz, alde aurreko ezagutzak izan behar dituzte.
Indarguneak:	Ikasleek parte-hartze handia izateko aukera ematen du. Power Point formatuko aurkezpen bat dakar, irakasleak erabiltzeko.
Erabilgarritasuna:	Eranskina nabarmentzen da: Nire diruaz ez. Banka etikoa eta herritarren erantzukizuna artikulua zati baten testu-iruzkina (egileak: Cristina de la Cruz eta Peru Sasia)
UNITATE DIDAKTIKOAK Que tu dinero piense como tú Enric Duran y Nùria Güell	
Nori zuzendua:	DBH 3 eta 4
Behar den denbora:	55 minutuko 3 saio
Hizkuntza:	Gaztelania
Formatua:	PDF, 14 or.
Edukiak:	Dirua, erreserba frakzionatua, aurrezki arduratsua, Banka etikoa.
Ahulguneak:	Ez dute behar bezala funtzionatzen albisteetara daramatzaten kanpo-estekak darabiltzaten ariketak. Rol-joko bat barneratzen du 3. saioan, baina ez du behar bezalako garapenik. Ez dago eguneratuta.
Indarguneak:	Irakasleek saioak dinamizatzeko behar duten informazioa ematen du. Ikasleek parte-hartze handia izateko aukera ematen du.
Erabilgarritasuna:	Galdera-erantzun jarraituen egitura darabil eta horrek hausnarketa kritikoa egiteko bidera irekitzen du zenbait gaitan, hala nola diruaren alternatibak eta diru-sarreraren iturriak.

UNITATE DIDAKTIKOAK Economía Solidaria para construir una ciudadanía global 2016	
Nori zuzendua:	Batxilergoko 1. maila
Behar den denbora:	Eskola-ikasturtea
Hizkuntza:	Gaztelania
Formatua:	PDF, 138 or.
Edukiak:	Ekonomia ikasgaiaren Batxilergoko 1. mailarako curriculum ofiziala Nafarroan
Ahulguneak:	Gaztelaniaz soilik dago eskuragarri.
Indarguneak:	Gida didaktiko osoa da, eta teoria eta ariketak ditu ikasleentzat. Eduki ofizialen multzoetatik abiatuta, gizarte-eraldaketarako hezkuntzako kontzeptuak barneratzen ditu.
Erabilgarritasuna:	5. eduki-multzoa: ekonomiaren finantza-alderdiak beste testuinguru batzuetarako baliabide izan daitezke.
UNITATE DIDAKTIKOAK Tú decides que hacer con tu dinero PROCLADE	
Nori zuzendua:	DBH 4 eta Batxilergoa
Behar den denbora:	50 minutuko 2 saio
Hizkuntza:	Gaztelania
Formatua:	PDF, 35 or.
Edukiak:	Kontsumo-gizartea; Ekonomia eta etika; dirua; Finantza alternatiboak.
Ahulguneak:	Ez du ikus-entzunezko baliabide osagarririk eskaintzen. Ezin da lineatik deskargatu.
Indarguneak:	Ikasleek parte-hartze handia izateko aukera ematen du. Erraza da irakasleentzat planteatzen diren jarduerak dinamizatzea.
Erabilgarritasuna:	Nabarmentzekoa da jasotako herentzia bat gastatzeko aukera askotarikoak ematen dituen jarduera.
GIDAK/ESKULIBURUAK Tú y el dinero FIARE	
Nori zuzendua:	DBH, Batxilergoa
Behar den denbora:	Zehaztugabea
Hizkuntza:	Gaztelania
Formatua:	PDF, 32 or.
Edukiak:	Dirua, diruaren erabilera, banku-eragiketak, ekonomia solidarioa eta banka etikoa
Ahulguneak:	Ikasleen parte-hartze txikia. Material osagarria behar du ikasgelako aurkezpenak arintzeko.
Indarguneak:	Irudi eta azalpen-taula interesgarriak ditu; hizkuntza ulergarria darabil, gertukoa. Prestakuntza-gidaliburua izan daiteke irakasleentzat, edo testuliburua nahiz iruzkin-liburua ikasleentzat.
Erabilgarritasuna:	Nabarmentzekoa da "La justicia en la isla de las flores" dinamika, ikasleentzat egokitzeko. Baliabide osagarriak dakartza.

GIDAK/ESKULIBURUAK La Clara i l'us responsable dels dioners FETS 2010	
Nori zuzendua:	Lehen Hezkuntza, DBH
Behar den denbora:	Zehaztugabea
Hizkuntza:	Katalana
Formatua:	PDF, 82 or.
Edukiak:	Dirua, finantza-kontzeptuak, kontsumo arduratsua, finantza alternatiboak
Ahulguneak:	Irudiak haur txikientzat dira.
Indarguneak:	Material moldagarria da; hizkera ulergarria eta gertukoa darabil. Testuliburua nahiz iruzkin-liburua izan daiteke ikasleentzat. Hausnartzeko ariketak dakartza, ikasleen parte-hartzea errazteko.
Erabilgarritasuna:	Komiki-formatuan, Banka Etikak tokiko gizarte-ekimen bati emandako mailegu baten istorioa eta mikrokreditu batek Hegoaldean izandako eraginaren istorioa nabarmentzen dira. Baliabide osagarriak dakartza.
GIDAK/ESKULIBURUAK Introducción a las Finanzas Éticas e Inversiones Responsables Proyecto Price UE (2014)	
Nori zuzendua:	pertsona helduak, unibertsitate-ikasleak
Behar den denbora:	Zehaztugabea
Hizkuntza:	Gaztelania.
Formatua:	Online, 23 or.
Edukiak:	Finantza Etikoa, Gizartearekin Arduratsua diren Inbertsioak.
Ahulguneak:	Ez du ariketarik edo ikasleen parte-hartzerik proposatzen.
Indarguneak:	Formatua, grafikoak eta irudiak dakartza, arina eta entretenigarria da; hizkuntza ulergarria eta gertukoa darabil; oso material moldagarria da.
Erabilgarritasuna:	Prestakuntzarako eskuliburu eta material osoa da irakasleentzat, eta testuliburua ere izan daiteke ikasleentzat, berariazko gai honi buruzkoa. Definizioak eta taulen erabilgarritasuna nabarmentzen dira.
GIDAK/ESKULIBURUAK Oletakorta REAS Euskadi, Alboan (2015)	
Nori zuzendua:	Batxilergoa, unibertsitatea
Behar den denbora:	Zehaztugabea
Hizkuntza:	Euskara, Gaztelania.
Formatua:	Cómic, 34 or.
Edukiak:	Ekonomia Sozial eta Solidarioa
Ahulguneak:	Ez ditu kontzeptuak sakon aztertzen. Komeni da alde zuzenetik edo gerora lantzea darabiltzan kontzeptuetako batzuk.
Indarguneak:	Genero-ikuspegia barneratzen du; hizkuntza ulergarria eta gertukoa darabil. Ekonomia sozial eta solidarioaren eta finantzen azalpen orokorra eta uztartua egiten du testuinguru horretan.
Erabilgarritasuna:	Euskadin bertan girotzen da, testuinguru errealean. Jarduerak egin eta ikasleak inplikatzeko material moduan erabil daiteke.

GIDAK/ESKULIBURUAK Banca limpia Setem 2011	
Nori zuzendua:	Pertsona helduak, unibertsitate-ikasleak
Behar den denbora:	Zehaztugabea
Hizkuntza:	Gaztelania.
Formatua:	PDF 64 or.
Edukiak:	Espainiako banka, armamentuan egindako inbertsioak.
Ahulguneak:	Ez du ariketarik edo ikasleen parte-hartzerik proposatzen.
Indarguneak:	Ikerlan zabala eta dokumentatua da, gai espezifiko bati buruzkoa.
Erabilgarritasuna:	Beste jarduera batzuk laguntzeko materiala izan daiteke.
GIDAK/ESKULIBURUAK Diners a qualsevol preu? I tu, qué saps? FETS 2007	
Nori zuzendua:	Batxilergoa
Behar den denbora:	Moldagarria.
Hizkuntza:	Katalana.
Formatua:	PDF 64 or.
Edukiak:	Espainiako banka, armamentuan egindako inbertsioak.
Ahulguneak:	Ez du ikus-entzunezko baliabiderik ematen ikasleei emandako azalpenei laguntzeko.
Indarguneak:	Informazio nahikoa ematen du irakasleen lana errazteko.
Erabilgarritasuna:	Irakasleek egiteko 6 proposamen didaktiko dakartza. Aurretiazko kontzeptuen azalpena behar du. Baliabide osagarriak dakartza.
GIDAK/ESKULIBURUAK Manual didáctico para la aplicación de la educación financiera en los centros educativos ADICAE 2016	
Nori zuzendua:	DBH, Batxilergoa
Behar den denbora:	Moldagarria
Hizkuntza:	Gaztelania.
Formatua:	PDF 31 or.
Edukiak:	Kontsumo arduratsua, publizitatea, kontsumitzaileen eskubideak, dirua.
Ahulguneak:	Ez du ikus-entzunezko baliabiderik ematen ikasleei emandako azalpenei laguntzeko.
Indarguneak:	Informazio nahikoa ematen du irakasleen lana errazteko.
Erabilgarritasuna:	Jardueren 6 proposamen egiten ditu (rola, inkesta, debatea, mikro izaerako enpresa txiki edo ertaina sortzea) adin eta iraupen askotarikoak.

JOKOA El rol de las finanzas FETS	
Nori zuzendua:	DBH 3 eta 4, Batxilergoko 1. maila
Behar den denbora:	ordu 1
Hizkuntza:	Gaztelania, Katalana.
Formatua:	PDF, 22 or.
Edukiak:	Kontsumo arduratsua, bidezko merkataritza, finantza etikoak.
Ahulguneak:	Prestakuntza-saioen programa baten esparruan osatu behar da jardueraren testuingurua.
Indarguneak:	Ikasleek partaidetza handia izateko aukera ematen du; irakasleen lana errazteko informazio nahikoa ematen du; hizkuntza ulergarri eta gertukoa darabil.
Erabilgarritasuna:	Aurretiaz finantza-sistemari buruzko sarrera bat egin behar da. Jarduera osagarri moduan erabil daiteke ikasgelan, testu-gida eta aurkezpenetan.
JOKOA Banca Ética ¿eres ético? FETS	
Nori zuzendua:	DBHko 2. zikloa eta Batxilergoa
Behar den denbora:	Moldagarria
Hizkuntza:	Gaztelania, Katalana.
Formatua:	Testa
Edukiak:	Dirua, balio etikoak.
Ahulguneak:	Lineako testak ez du emaitzarik ematen; beraz, egokitu egin behar da baliabidea.
Indarguneak:	Ikasleek parte hartzeko aukera handia ematen du; hizkuntza ulergarria eta gertukoa darabil.
Erabilgarritasuna:	Sarrerako materiala edo beste jarduera batzuk laguntzeko materiala izan daiteke. Baliabide teknologiko batzuetara egokitzeko aukera ematen du.
JOKOA El preu del diners FETS	
Nori zuzendua:	DBH
Behar den denbora:	Moldagarria
Hizkuntza:	Katalana
Formatua:	Linean.
Edukiak:	Gizartearekin arduraz jokatzeko duten inbertsioak, ingurumen-jasangarritasuna, finantza etikoak.
Ahulguneak:	Ez da eguneratzen. Ataletako bat (finantza-sistema) ez dago egoera aktiboan. Katalanez soilik dago.
Indarguneak:	Ikasleek parte hartzeko aukera handia ematen du; hizkuntza ulergarria eta gertukoa darabil; berritzaileak dira formatua eta gerturatzeko modua.
Erabilgarritasuna:	Bineta komikoen atal bat du, gaztelaniaz, beste jarduera batzuetan erabiltzeko modukoa. Baliabide osagarriak dakartza.

JOKOA Ethica, el juego de las finanzas éticas Ethica Co (2012)	
Nori zuzendua:	Batxilergoa, unibertsitatea
Behar den denbora:	2 ordu
Hizkuntza:	Gaztelania, Katalana.
Formatua:	mahai-jokoa
Edukiak:	banku-jardueraren ondorioak, finantza etikoak.
Ahulguneak:	Ez da eguneratzen. Erosi egin behar da
Indarguneak:	Ikasleek parte hartzeko aukera handia ematen du; berritzaileak dira formatua eta gaia lantzeko modua; generoa lantzen aukera ematen du; gaitegi zabalak du; jokoa dinamizatzeko gida dakar.
Erabilgarritasuna:	27 pertsona bitarte joka dezakete. Baliabide osagarriak dakartza.
BIDEOAK/DOKUMENTALAK Banca Ética-Informativo Attac TV (2009)	
Nori zuzendua:	Pertsona helduak eta Batxilergoko ikasleak
Behar den denbora:	3.40'
Hizkuntza:	Gaztelania.
Formatua:	Vimeo
Edukiak:	Banka etikoa.
Ahulguneak:	Ez dago eguneratuta. Ikusi aurretik landu behar dira bideoan ageri diren zenbait kontzeptu.
Indarguneak:	Hizkuntza ulergarria eta gertukoa darabil.
Erabilgarritasuna:	Sarrerako materiala edo beste jarduera batzuk laguntzeko materiala izan daiteke.
BIDEOAK/DOKUMENTALAK ACE BANK Netwerk Vlaanderen (2011)	
Nori zuzendua:	Batxilergoa
Behar den denbora:	18.52'
Hizkuntza:	Jatorrizko bertsioa (gaztelaniaz eta katalanez azpidatuta)
Formatua:	Youtube
Edukiak:	Giza eskubideak, inbertsio etiko eta jasagarriak
Ahulguneak:	Ez dago bertsio bikoizturik.
Indarguneak:	Ikus-entzunezko baliabide erakargarria da, "kamera ezkutaren" formatuan; hizkuntza ulergarria eta gertukoa darabil; ikasleek parte hartzeko aukera handiak ematen ditu, ondorengo debatera gonbidatzen baitu.
Erabilgarritasuna:	Sarrerako materiala edo beste jarduera batzuk laguntzeko materiala izan daiteke.

BIDEOAK/DOKUMENTALAK Con tu dinero Setem Hego Haizea 2013	
Nori zuzendua:	Pertsona helduak, unibertsitate-ikasleak
Behar den denbora:	1.07'
Hizkuntza:	Gaztelania
Formatua:	Vimeo (DVD formatua lor daiteke, eskaripean)
Edukiak:	Bankuen inpaktuak, finantza etikoak eta bankuez kanpokoak.
Ahulguneak:	Ez dago eguneratuta. Ez du ariketarik edo ikasleen parte-hartzerik proposatzen.
Indarguneak:	Informazio nahikoa ematen du irakasleen lana errazteko.
Erabilgarritasuna:	Aurretik edo gerora erabiltzeko gidoi bat balia daiteke, hausnarketari eta debatarei laguntzeko.
BIDEOAK/DOKUMENTALAK Finanzas Éticas Documentos TV (2012)	
Nori zuzendua:	Batzilergoa
Behar den denbora:	57.38'
Hizkuntza:	Gaztelania
Formatua:	Dokumentala
Edukiak:	Finantza krisia, Banka etikoa
Ahulguneak:	Ez dago eguneratuta. Ez du ariketarik edo ikasleen parte-hartzerik proposatzen.
Indarguneak:	Hizkuntza erraza eta gertukoa darabil; egiaz bizitako egoerak aurkezten ditu.
Erabilgarritasuna:	Gai jakin bati buruz hitz egiten duten zati laburrak erabil daitezke, material osagarri moduan.
BIDEOAK/DOKUMENTALAK Con coco ADICAE	
Nori zuzendua:	DBH 3 eta 4
Behar den denbora:	3'
Hizkuntza:	Gaztelania
Formatua:	Animazioa
Edukiak:	Kontsumoa, aurrezkoa, zorpetzea
Ahulguneak:	Ez du aintzat hartzen genero-ikuspegia.
Indarguneak:	Hizkuntza erraza eta gertukoa darabil; egiaz bizitako egoerak aurkezten ditu.
Erabilgarritasuna:	Sarrerako materiala edo beste jarduera batzuk laguntzeko materiala izan daiteke.

2. Eranskina: Finantzia-hezkuntzako ekimenen bilduma

Ekimenaren edo erakundearen izena	Erakunde-mota	Web-orria	Nori zuzendua	Darabiltzaten tresnak
Recetario Financiero	Enpresa soziala	elrecetariofinanciero.com	Interesa duen pertsona oro. Proiektu asko haurrei, gazteei eta ikasleei zuzentzen dizkiete.	Web-ataria, liburuak, aldizkaria eta artikulatuak dituena, eta aurrez aurreko prestakuntza
ADICAE	Elkartea	adicae.net	Interesa duen pertsona oro. Kontsumitzaileak. Finantza-hezkuntzako ematen zaie boluntarioei.	Hitzaldiak, mintegiak, foroak, web-plataforma, lineako prestakuntza eta kontsumitzaile kaltetuen defentsarako komiteak sortzeko sustapena.
Finanzas para todos	BMBN-CNMV eta Espainiako Bankuaren proiektua	finanzasparatodos.es	Hezkuntza-eremuan: Ikasleak eta irakasleak. Web-orrian: profil guztiak.	2008-2012 eta 2013-2017 aldie-tarako finantza-hezkuntzako planak. Prestakuntza programarako garatutako gaitegia. Prestakuntzarako baliabideak ditu web-atarian.
BBVA: Valores de Futuro	Banku pribatua	valoresdefuturo.com	Ikasleak: Lehen Hezkuntza eta DBH 1, 2 eta 3	Parte hartzeko 63 tailer, aurrezki-kanpaina, lineako prestakuntza.
Fundación Junior Achievement	Nazioarteko erakundea, irabazi asmorik gabekoa	fundacionjaes.org	7 eta 30 urte bitarteko ikasleak: Lehen eta Bigarren Hezkuntza, Batxilergoa, Lanbide Heziketa eta unibertsitatea.	Pedagogoen prestatutako hezkuntza-programak, hezkuntza-etapen arabera.
Kutxabank: Finantzak Bizitzeko	Banku pribatua	finanzasparalavida.com/eu/	DBHko ikasleak, 13 eta 15 urte bitartekoak	Aurrez aurreko saioak, simulazio-joko bat erabilita.
Probidea	Aholkularitza-enpresa	probidea.com	12 eta 14 urte bitarteko gazteak.	Finantza arduratsu/adimentsuen tailerra.
Barymont	Finantza-bitartekaritzako konpainia	barymont.com	Pertsona mota oro.	Finantza-hezkuntzako hitzaldiak eta aurrezteko tailerrak familientzat.

Ekimenaren edo erakundearen izena	Erakunde-mota	Web-orria	Nori zuzendua	Darabiltzaten tresnak
Caixabank: Educaixa	Banku pribatua	educaixa.com	Ikasleak eta irakasleak: Lehen eta Bigarren Hezkuntza, Batxilergoa eta Lanbide Heziketa. Pertsona orok du sarbidea web-plataforman.	Baliabideak web-orrian (bideoak, oharrak...). Ikasleentzat, gainera, "KitEconomía" deritzona, finantza-hezkuntzarako eta ekintzailtzarako materialak biltzen dituena.
Santander: Finanzas para Mortales	UCEIF fundazioa	finanzasparamortales.es	Unibertsitate-eremurako, batik bat. Interesdun ororentzat webean eta linean.	Tresna bisualak, prestakuntzakoak eta elkarreragileak web-plataforman.
Kontsumobide	Erakunde autonomoa, Eusko Jaurlaritzako Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailari atxikia	kontsumobide.euskadi.eus	Hartzaile askotarikoak. Bereziki: ikasle gazteak eta adineko pertsonak.	Kontsumo arduratsuari buruzko tailerrak eta ikastaroak.
International Network on Financial Education	ELGE erakundeak bultzatutako proiektua	financial-education.org	Kide dituen gobernuak informatzea du xede.	Dokumentazioa eskaintzen du, hala nola <i>Estrategias nacionales sobre educación financiera eta Informes PISA de la alfabetización financiera de los estudiantes</i> .
Red Española de Educación Financiera	CECA du bultzatzaile (esparru pribatukoa)	rededucacionfinanciera.es	Pertsona mota oro.	Finantza-hezkuntzaren gaineko jakintza, albisteak eta ekitaldian konpartitzeko bilgunea.
Consumer Classroom	Europako Batzordeak bultzatutako proiektua	consumerclassroom.eu/es/	Irakasleentzat, bereziki.	Irakasleentzako baliabideen eta irakasteko tresnen eskaintza. Finantza-ezagutzak izeneko atala du.
EduFInet	Erakundeen sarea	edufinet.com	Pertsona mota oro.	Finantza-ezagutzak eskuratzeko web-plataforma.

